

Osatu berri



2013ko iraila | 11. zk.

IRITZIA | 9

Beharrezkoa al da txertatzea?

GURE ELKARTEAK | 12-13

Argia
Ostomizatuen elkarte

GERTUTIK | 18-19

Iban Garate

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

'Larrialdiak euskaraz' gida



PERTSONEN KUDEAKETA PROZESUAK, ETENGABEKO HOBEKUNTZAREN BIDEAN

UDAKO BEROA

Uda ailegatu da eta berarekin bat nahi eta espero genuen beroa ere paratu da gurera. Beroa noiz etorriko zain gainontzeko urtarotan premia sentitzen badugu ailegatu orduko aurre egiten jakin behar dugu, areago, oporretan lanean egotea tokatzen bazaigu. Asko dira gomendazio faltagatik gorriak ikusten dituzten langileak eta batzuetan ondorioak ere larritu daitezke. Hori guri pasa ez dakigun aholku batzuk ematen ausartuko gara. Lehendabizi, lantokia lehenengo orduetan aireratu behar da, goizeko hamarretatik hamaiketara hobeto, eta kanpoko tenperatura barrukoa baino altuagoa denean itxiko dira leihoak. Bigarrenik, lanpostuan eguzkiaren erradiazioa saihestu behar da eta leihoak zuzenean sartzen bada, pertsiana, gortinak edo estoreak

Itxi behar dira. Hirugarrenik, beroa sortu ahal duen edozein

aparatu itzali behar da, erabiltzeko premiarik ez badago (argiak, irrata, telebista, mikrouhinak...). Eta azkenik, galtzen dugun likidoa nola edo hala berreskuratzeko geure burua hidratatu behar dugu eta ur freskoa izaten edaririk egokiena hotzegia ez bada. Sarritan edan behar dugu baina aldi bakoitzean asko edan gabe- 250 ml edo baso bat ur-.

Errendimendua eta etekina ahalik eta gehienez ateratzeko bero olatuaren aurreko defentsarako mekanismoak ondo bereganatuta egon behar dira. Horretarako, beroak sikatu eta usteldu ez gaitzan hizkuntzaren hidratazioa benetan beharrezkoa da, betiere ondo dosifikatua eta aldi aldi-koa bada. Beraz, ez ahaztu babes handiko kremak erabiltzea eta egunean behin baino gehiagotan ematea gure azalak halako bizigarriak eskertzen dituelako.

Hizkuntza ere egunero zaindu behar da ,eta eguneroko zalantzei eta gorabeherei irtenbidea eman behar zaie aholku eta argibide-iturrietara joz hizkuntzak hala eskatzen duen guztietan.

Azkenik, guztioi helarazi nahi dizuet Txepetx izeneko hizkuntzalarari maisuaren teoriaren arabera hizkuntza bat menperatzeko hiru zutabe nagusi daudela. Horietan lehenengoa motibazioa da, hots, hizkuntza bat ikastera, jakitera edo mintzatzen jarraitzea bultzatzen duten desio eta interes dosiei dagokiena Bigarren eta hirugarrena, ezagutza eta erabilera dira, azkenean, prozesua behar bezala borobiltzeko hiruren katea gauzatu behar da. Eguzkiarekin bezala, hasi eta motibatu gaitetzen lehenengotik eguzkiaren izpi gogorrek larrua arrakalatu ez diezaguten eta gure hizkuntzak fresko eta bizi jarraitu dezan.

IRAILA

EUSKERA IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIAK

Lanorduz kanpoko ikastaroetarako matrikula orriak zerbitzu erakundeetara bidaliko dira irailaren 16tik aurrera. Matrikula orria erabiltzen ez bada, urriaren 24a baino lehenago itzuli behar da dagokion zerbitzu erakundearen pertsonaleko zuzendaritzan "Jakinarazpena: euskara ikastaroari uko egitea. 2013-2014 ikasturtea" izeneko inprimakiarekin batera. Matrikula orria jaso edo erabili ezean itzuli egiten ez bada, hurrengo deialdian eskabidea baztertu egingo da.

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO MATRIKULAREN DIRU LAGUNTZA

Eskabidea aurkezteko epea: 2013ko ekainaren 24tik irailaren 30era bitartean, biak barne. Baldintzak:

- a) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langile finkoa, bitartekoa, ordezkoa edo aldi baterakoa izatea, eta zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea, 2013ko apirilaren 1etik irailaren 30era bitartean.
- b) Bitartekoen, ordezkoen eta aldi baterakoen kasuan, 2012ko urriaren 1etik 2013ko irailaren 30era bitarteko epean, guztira, sei hilabetetik gora lan eginda egotea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan.
- c) Ikastaroa osorik bukatu eta dagokion bukaerako azterketa eginda edukitzea. Informazio gehiago behar izanez gero, Euskara Zerbitzu Korporatibora jo dezakezu.

SEAUS-KO III. JARDUNALDIAK

irailaren 26an Donostian Donostiako Unibertsitateko Ospitalean.

Jardunaldiak Pazientearen edo Bezeroaren Arretarako zerbitzuetako eta eremuetako profesionalei (medikuak, gizarte langileak, administrariak...) zuzenduta daude eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko areto nagusian egingo dira. Jardunaldiak dohainik dira eta izena eman behar da irailaren 12a baino lehen. Izena emateko orriak aretoa bete arte onartuko dira.

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45, 01006
 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberry@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Argazkiak:

Arteman

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberry helbide elektronikora jaso nahi baduzu, zure datuak gureru bidali besterik ez duzu.
osatuberry@osakidetza.net

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeuren protagonista izan zaitezke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko idatzi osatuberry@osakidetza.net helbidera.

Eta gainera...

Ezetz jakin!

Hizkuntzaren aldeko gramatikaren edo terminologiaren inguruko zalantzarik baduzu, gureru bidali eta erantzun zuzena ematen ahaleginduko gara.

Adibidez: Egokia al da Basurtuko Ospitalea idaztea? Ez, gaur egun, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea bere izen ofiziala da.
osatuberry@osakidetza.net



AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN  Pertsonen kudeaketa prozesuak
9	IRITZIA Beharrezkoa al da txertatzea?
10 11	OSASUN URRATSAK Bilbo Eskualdeko Trebakuntza ikastaroak
12 13	GURE ELKARTEAK Argia Ostomizatuen elkarteak
14 16	PLAZATIK  El Karpin
17	ZORTZIKO TXIKIAN Miren Ormazabal
18 19	GERTUTIK Iban Garate
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN 'Larrialdiak euskaraz' gida
22 23	ATZERA BEGIRA Medikuen biografiak & Epidemiak
24 25	OSAKIDETZAN BIZITZA Txagorritxu ospitaleko ikasgela
26	OSASUN-ZENTROAN Lazkao
27	TXAPELA BURUAN Guardia

EUSKADIKO ZAHARTZE-ARTATZE INTEGRALA SARITU DUTE EUROPAN



Europako Batzordeak Euskadi saritu du berrikuntzan oinarritutako zahartze aktiboaren eta osasuntsuaren artatze integralean egindako lan eredugarriagatik. Osasun sailburua den Jon Darponek eta Ikerketa eta Berrikuntzako zuzendaria den Maria Agirrek Euskadiri eta bere instituzioei (Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako Udala eta bazkide pribatuak, teknologiko zein akademikoak) emandako *Reference Sites* 2013 saria jaso zuten Bruselan.

Saria *European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing* Europako programan kokatzen da; ekimen pilotuak bizitza osasuntsurako itxaropena 2020an bi urte gehiagokoa izatea nahi du. Hala, zahartze aktiboari eta osasuntsuari berrikuntzatik heltzeko jardunbide egokiengatik nabarmendu diren eta emaitza positiboak eta sinergiak lortu dituzten eskualdeetako, hirietako edo ospitaleetako partzuergo edo koalizioak saritzen dituzte.



LABORATEGIETAKO ERAIKIN BERRIA GURUTZETA UNIBERTSITATE OSPITALEAN

Laborategietako eraikin berriarekin, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak amaiera eman dio 2007an abiarazitako proiektuari, 70eko hamarkadaz geroztik ospitalean izandako eraberritze egitasmo handienari. Horri esker, zentroko A aldea handitu eta ospitalizazioko 64 ohe berri gehitu dira. Heliportua eraiki zen, Kritikoen aldea berrantolatu eta hobetu, eta Larrialdi Zerbitzua handitu eta gaurkotu. Eraikin berriak zazpi solairu dauzka, 8.660 metro koadro guztira, eta bere baitan hartuko ditu Analisi Klinikoetako Laborategia eta Hematologia, Mikrobiologia, Anatomia Patologiko eta Biocruceseko instalazio berriak.

AUO-KO LOAREN UNITATEAK MEXIKOREKIN BAT EGIN DU IKERKETA PROIEKTUETAN

Arabako Unibertsitate Ospitaleko (AUO) Loaren unitate funtzionalak Espainia eta Mexikoko pneumologiako elkarte zientifikoek ematen duten ikerkuntza proiektu onenarentzako beka lortu du. Gure profesionalak herrialde bietako 100 talderekin lehiatu dira osasun alorreko profesionalen curriculum garapenari laguntzea helburu duen beka eskuratzeko.

Horrela, bada, AUOk hiru hilabetez pneumologo mexikar bat izango du loaren patologien inguruan ikerketa proiektuak garatzen.

Ebaluatzeko batzordeak aurkezturiko proiektuaren kalitate zientifikoaz eta bidegarritasunaz gain, zentroaren ospea ere aintzat hartu du.

Lankidetzak horrek atea zabaltu dio herrialde aztekako Arnas Gaixotasunen Institutu Nazionalaren, Mexikoko Loaren Akademiaren eta BioAraba institutuaren (ikerketaren euskal fundazioa) artean akordio bat martxan jartzeari.

OSAKIDETZAN EBAKUNTZAK EGITEKO BATEZ BESTEKO ITXARONALDIA HIRU EGUNEZ LABURTU DA

Ebakuntzak eta kontsultak egiteko itxaronaldia hiru egunez laburtu da Osakidetzan 2013ko lehenengo seihilekoan, 2012ko abenduko datuekin alderatuta. Euskal Osasun Zerbitzuak ohiko parametroei eutsi die, jarduerari eta asistentzien kalitateari erreparatuta. 2013ko lehenengo zatiaren balantzearen arabera, Osakidetza bere zerbitzu eta kalitate estandarrak finkatzea lortu du. Halaber, itxaronaldia 50 egun baino gutxiagokoa da interbentzioetarako, 9 egun baino gutxiagokoa probak egiteko, eta 23 egun baino gutxiagokoa kontsultetarako. Horrenbestez, 65/2006 Dekretuan ezarritako helburuak bete dira; izan ere, 60 eguneko gehieneko epea xedatzen du urduteak ez diren prozedura kirurgiko programatuak gauzatzeko. Halere, 2011n Osakidetza hobetzeko planean ezarritako epeen azpitik dago egungo batez besteko itxaronaldia, 55 eguneko gehieneko itxaronaldia ezarri baitzen plan horren bidez.

UDAN HIESA PREBENITZEKO KANPAINA GAUZATU DA



'Zeuk aukeratu duzu zer sartzen den zure harremanetan, baita kanpoan ere zer gertatzen den ere' izeneko kanpaina izan du martxan Osakidetza udan. Lau mezu nagusi izan ditu: sexu bidez transmitutako infekzioak ugaritu dira, Hiesa izateko arriskuak gora egin du, aho-sexua arriskuko jarduna da infektatzeko, eta ez da sexu harremanik izan behar preserbatiborik gabe. Osasun Sailak 1.500 kartel banatu ditu, eta Internet zein sare sozialen bidez ere hedatu du mezua.



PERTSONEN KUDEAKETA PROZESUAK, ETENGABEKO HOBEKUNTZAREN BIDEAN

Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak pertsonen kudeaketa prozesuak eraginkorrak izateko lanean dihardu aspalditik. Bide horretan, kudeaketa erreminta berriak bilatzeari ekin zion, eta prozesuetan oinarritutakoa aukeratu eta lau prozesutan garatu dute. Erreminta horrek abantaila asko ekarri dizkie eta, gainera, ISO 9001:2008 kalitate ziurtagiria jaso dute.

Prozesuetan oinarritutako kudeaketa sistemen arabera, organizazio bat eraginkorra izan dadin aurretik elkarri lotuta dauden jarduerak identifikatu eta kudeatu behar ditu; izan ere, prozesuetako baten emaitzak beste prozesu baten sarrerak izan daitezke. Sistema honek kudeaketa tradizionala ordezkatzen du.

Osakidetzako Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko Zuzendariordetzaren ustez, kudeaketa sistema hau askoz horizontalagoa da, hierarkia gutxiagokoa, eta kontzeptu berriak gehitzen ditu, hala nola, lantaldea, arduradunak, neurketa, datuak, etengabeiko hobekuntza... Kudeaketa sistema tradizionala erabili izan dutenentzat

kontzeptu berriak dira horietatik gehienak. Are gehiago, erreminta horrek bezeroarengan jartzen du arreta nagusia, bezeroaren gogobetetzean.

Hala, lan egiteko modu berriak ahalbideratu du ekintza guztiak deskribatzea, antolatzea, dokumentatzea eta, batez ere, bezeroei ekarpenak egitea balioetan eta asebetetzean. Era berean, prozesuen araberrako sistema horren bitartez errazago antzeman daiteke zein ekintzak ez duen balio erantsirik gehitzen, bai eta lortutako emaitzen eraginkortasuna errazago neurtu ere.

Sistema tradizionalarekin alderatuta, erreminta berriak abantaila nabarmen hauek ditu: taldeko lana sustatu eta erantzukizunak hartze-



ko joera nagusitzea; datu objektiboak eskuratuta emaitzak neurtu ahal izatea; eta jarduna bezeroen asebetetzea lortzeari begira egotea.

ZAILTASUN BAKARRA, TALDEAN LAN EGITEN IKASTEA

Kudeaketa bera prozesuen sistemara bideratzeak zailtasun bakarra dauka: lan egiteko ohitura edo kultura aldatzea. Langileek taldean lan egiteko erantzukizuna, kontzientzia eta sentsibilitatea garatu behar dute. Hala, lanak partekatu, emaitzak neurtu, zuzendaritzari aurkeztu eta, horren arabera, hobekuntzak ezarri behar dituzte.

Era berean, kudeaketa sistema honek eragozpen txiki bat dauka: emaitzak epe ertainean hasten dira ikusten, ez aurretik, eta hori gertatu artean langileek beraiek ez daukate motibazioari eusteko bestelako laguntzarik. Baina, gerora, emaitzak oso argiak direla azpimarratu dute Giza Baliabideen Zuzendariordeztatik.

ETENGABEKO HOBKUNTZA

Prozesuen araberrako kudeaketa sistemaz ari garenean, ezinbestez aipatu behar da etengabeko hobekuntzaren kontzeptua eta berorren zikloa. Ziklo horren baitan, planifikatutakoa praktikara eramaten

BULTZATZAI-LEAK

Ezkerretik eskumara, Osakidetzaiko Giza Baliabideetako zuzendariorde Maite Paino eta Nati Saenz; eta haien laguntzaile Maite Redondo eta Inma Mancisidor.

da, egiaztatu, egindakoa neurtu eta, neurketaren emaitzen arabera, egokitzapen eta hobekuntzak egin. Hortaz, esan ohi da zikloa ez dela inoiz bukatzen eta etengabeko hobekuntza prozesuan murgilduta dagoela.

“Kudeaketa sistema berria horizontalagoa da, kontzeptu berri asko gehitzen ditu eta bezeroaren gogobetetasunean jartzen du arreta nagusia”.

LANSARIEN KUDEAKETA, LEHEN PROBA

Sistema honekin lanean hasteko lehen pausoa 2007an eman zen, Osakidetzaiko Giza Baliabideen Zuzendariordeztak langileen lansariak -nominak eta Gizarte segurantzakudeatzeko prozesu korporatiboari erreminta honekin heldu zionean. Giza Baliabideetako zuzendariorde Natividad Saenz Zubiagak gogoan dauka hasiera gogorra izan zela: “Fitxa guztiak prozesuka definitu behar izan genituen, lan filosofia berrira egokitu behar izan genuen, informazio guztia batu, prozesuaren hasiera eta bukaera zehaztu...”. Gainera,

langileen lansarien, nominen eta Gizarte Segurantzaren kudeaketa korporatiboa izan arren, kudeaketa deszentralizatu du eta horrek zailtasun handiagoak dakartza. Horregatik, prozesuaren jarraipena egiteko batzordea osatu zen, Osakidetzaiko zentroetako ordezkariak eta erakunde zentralerako kideez osatua.

Natividad Saenzek argi du kudeaketa deszentralizatu duen, eta aldi berean, Osakidetza oso aintzat hartzen duen ziurtagiria lortzea erronka handia izan zela, baina emaitzak begi bistan daude: “Orduan ez zegoen modu honetan lan egiteko inongo kulturarik, baina ordutik aurrerapauso asko eman dira eta gaur egungo langileen artean barneratuta dago. Esperientzia hura oso aberasgarria izan zen guztiontzat”.

2012AN, BESTE HIRU PROZESU

Handik urteetara, 2012aren hasieran, prozesuen mapa definitu ostean Osakidetzaiko Giza Baliabideen Zuzendaritzak beste hiru prozesuri heltzea erabaki zuen. Aukeraketa egiterakoan, prozesuaren lehentasuna, erregistratutako jardunaren tamaina eta batutako esperientzia izan zituzten kontuan, besteak beste.

Honako prozesu korporatibo hauek aukeratu zituzten sistema berriarekin lantzen hasteko: “Lan eskaintza publikoa”, “Lekualdatze lehiaketak” eta “Lanpostuetako hizkuntza eskakizunen eta derri-gortasunaren kudeaketa, euskararen normalizazioaren esparruan”. Aldi berean, jakina, langileen nominen kudeaketaren prozesu korporatiboa berrikusten eta berorri hobekuntzak gehitzen jarraitu zuten.

2012an zehar hiru prozesu korporatiboekin lan egin eta emaitza onak lortu ostean, erabaki zuten etengabeko hobekuntzaren bila pauso bat gehiago emateko moduan zeudela. Horregatik, urteko azken lauhilekoan ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtagiria lortzeko kanpo ikuskaritza gainditzeko apustua egin zuten. Apustu horrek bi alde nagusi zituela ondorioztatu zuten: lantaldeek, prozesu arduradunek eta bertan inplikaturako profesional guztiek kanpoko eragile baten onespina jasotzea batetik; eta Giza Baliabideetako prozesuei eutsi, hobetu eta optimizatzeko konpromiso irmoa hartzea, bestetik.

Hori erabaki ostean, langileen artean prestakuntza ikastaro batzuk antolatu eta sistema informatikoa arau horren arabera egokitu ondoren, arduradunen eta talde kudeatzaileen sistematizazioari eta jarraipenari, adierazleen neurketa-ri eta prozesuen gorabeheren azterketari ekin zieten. Une oro prozesu osoaren jarraipena egin zuten Giza Baliabideetako Zuzendaritzak eta barne zein kanpoko ikuskaritzaiek.

HIRU PROZESU

Osakidetzako Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariorde Maite Paino Ortuzarrek azaldu du aukeratutako hiru prozesuetan esperientzia handia dagoela. Azken urteotan hainbat lan eskaintza publiko antolatu dituzte eta horien bitartez balioztatu ahal izan dute onartutako prozesuen sistema. Ia gauza bera gertatu zen lekualdatze lehiaketen prozesuarekin. Are gehiago, Painok uste du, proba pilotua izan gabe, ku-

deaketa erreminta berria benetako prozesu batean ezarri ahal izateak berebiziko garrantzia izan duela. Era berean, Painoren ustetan, hainbeste jende bere baitan hartzen duen prozesua lantzeak izugarriko etekina ematen du, ikasgai eta esperientzia gisa.

Euskararen kasuan, berriz, Giza Baliabideetako zuzendariordeak ondorioztatu zuen Euskara Zerbitzuak lehendik ere bazuela ISOk berak eskatzen duen lan egiteko antzeko modua eta lan ugari aurreratuta zuela; hala nola, adierazleak definituta, hobekuntzak kontrolatzeko gailuak... ISO erreminta bera ez zeukaten ezarrita, baina filosofia barneratuta zuten aldez aurretik. Gainera, prozesu honek bezero eta erabiltzaileengan eragin zuzena du, izan ere, lanpostu funtzionaltan euskararen ezagutza derrigorrez eskatzeak eta berori egokiro kudeatzeak eragina du asistentzia sanitarioa herritarrei hurbilen egi-

ten zaien hizkuntzan emateko -euskaraz edo gaztelaniaz-. Alegia, asistentzia sanitarioaren kalitatean eragina du.

“Hainbeste jende bere baitan hartzen duen prozesua lantzeak izugarriko etekina ematen du, ikasgai eta esperientzia gisa”.

ERAKUNDEAREN ETA LANGILEEN ONERAKO

Azkenean, kanpo ikuskaritzak ontzat hartu zuen Osakidetzako Giza Baliabideetako hiru prozesu berri horietan egindako lana eta ISO 9001:2008 ziurtagiria eman zien hirurei. Giza Baliabideetako arduradunak eta lantalde osoak pozik daude lortutakoarekin, baina aitortzen dute lan horren guztiaren helburua ez dela izan ez ziurtagiria ez kanpo

BEZEROARI BEGIRA

Giza Baliabideetako langile guztiek erreminta berriak barneratu dituzte, eta bezeroen asebetetzea lortzeari begira egiten dute lan.





onespena lortzea, nahiz eta oso eskertuta dauden. “Guk lana hobeto egiteko asmoarekin egin dugu eta dagoeneko badakigu emaitzak oso onak direla; hori da guretzat pozgarriena”. Lorpenen artean, bi nabarmendu dituzte: zuzendaritzako zerbitzuetan taldean lan egiteak balio handia hartu duela eta ezagutza ere asko zabaldu eta partekatu dela.

Langileen lansarien kudeaketa jasotzen duen prozesu korporatiboari dagokionez, prozesua lehenengoz 2007-2009 epealdirako ziurtatu zuten eta bigarren 2010ean egiaztatu zuten; eta aurtengo honenkin prozesua hirugarren epealdian ziurtatu dute.

“Guk lana hobeto egiteko asmoarekin egin dugu eta dagoeneko badakigu emaitzak oso onak direla; hori da guretzat pozgarriena”.

IKUSKARITZA ETENGABEA

Lansarien kudeaketa ikusi ahal izan dugun bezala, ziurtagiria behin jaso arren, urtero kanpo ikuskaritza batek nominetako kideek egindako lana ISO arauarekin bat datorren berrikusiko du. Horren aurretik, gainera, erakundeak berak barne ikuskaritzak egin behar ditu. Jakina, barne ikuskaritza horiek oso aproposak izan ohi dira erakunde barruan dauden gabeziak identifikatu eta egin beharreko hobekuntzak antzemateko.

Eta orain? Osakidetzako Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariorde Maite Painok aurreratu du Hautatze eta Hornidura Zerbitzuan, prozesuen bidez kudeatzeko moduko bi arlo daudela: mugikortasuna eta kontratazio zerrendak. Horiek kudeaketa sistema honetara hedatuko dituzten aztertu beharra dutela argitu du. Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari dagokionez, Natividad Saenzen arabera oraindik ez da halako erabakirik hartu.

IKUSKARITZA ETENGABEA

Behin ISO 9001:2008 ziurtagiria jasota, urtero barne eta kanpo ikuskaritzak gainditu behar dira, lortutakoa etengabe berretsi eta hobetuz.



R
Resumen

PROCESOS DE GESTIÓN DE PERSONAS, CERTIFICADOS

La Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza ha desplegado, estos últimos años, un nuevo sistema de gestión aplicado a los siguientes procesos corporativos: Gestión retributiva de personal –nóminas y seguridad social-, Oferta pública de empleo, Concurso de traslados y cobertura de Perfiles Lingüísticos en el marco de la normalización del uso del euskera. Todos ellos han recibido la certificación externa bajo norma ISO 9001:2008.

Dicha certificación tiene un valor muy notorio, pero desde la Dirección de RRHH de Osakidetza valoran en mayor medida las ventajas que esta herramienta de trabajo les ha brindado a sus equipos en el día a día, tales como: orientar la actividad de la organización hacia la satisfacción de los clientes, fomentar el trabajo en equipo, asumir responsabilidades, medir los resultados a través de datos objetivos, así como conseguir y planificar acciones de mejora.

El proceso de Gestión retributiva fue el primero que acometieron –desde 2007-, ahora, está en el inicio de su tercera certificación. Los otros tres restantes, están ya expuestos a auditorías internas y externas para revisión y mejora.



Miren Basaras

*UPV/EHUko
Mikrobiologia irakaslea.*

BEHARREZKOA AL DA TXERTATZEA?

Txertoek eta txertaketa kanpainak osasunean eta bizitza kalitatean dituzten hobekuntzak ukatu ezinak dira. Historian zehar, txertoak gaixotasun infekzioso ezberdinak kontrolatzeko gai izan dira eta milioika pertsona heriotzatik salbatu dituzte. Batzuetan ere gai izan dira gaixotasun infekzioso batzuk desagerrarazteko, esate baterako baztanga edo nafarrerria deritzona.

Gure inguruan, 1975. urtetik hona txertaketa egutegi moduan ezagutzen duguna erabiltzen da. Hau da, umeak jaiotzen diren unetik beretik kontrolatzen dira eta hainbat txerto jartzen zaizkie gaixotasun horiek ez pairatzeko, hala nola elgorri, errubeola, polio, tetanos eta kukutxeztularen aurkakoak. Txertaketa egutegi horiek berriki egiten dira eta urte batzuetan txerto berriak bertan sartzea edo beste batzuk kentzea proposatzen da hainbat ikerketa eta azterketa burutu ondoren; sartu izan den azken txertoa giza papilomabirusaren kontrakoa izan da eta kendu izan dena BCG edo tuberkulosiaren kontrakoa.

Nahiz eta txertoek ematen dituzten onurak begi bistan egon, badaude txertaketaren aurka hitz egiten dutenak. Talde horien iritziz, txertoak ez dira beharrezkoak, gaur egun kontrolatu beharreko gaixotasun horien gaixo kopurua asko jaitsi delako. Baina pentsatu behar duguna da gaixotasun horiek sorrarazten dituzten mikroorganismoak ez direla desagertu, gure artean daudela, airean, uretan... Beraz, immunizatu gabeko pertsonak aurkitzen dituztenean beraiengana joan eta kutsatu egingo dituzte. Horregatik, azken urteotan, gaixotasun batzuen kopurua igo egin da nabarmen, elgorria edo kukutxeztula, alegia.

Txertoen aurkako beste iritzi bat da txertoek sarritan arrisku larriak sorrarazten dituztela. Egia da medikuntzan arrisku hitza asko erabiltzen dela, bai eta arrisku maila bat izan dezaketen prozedurak eta teknikak badaudela ere, baina gauzak argi azaldu behar dira. Elgorria, esate baterako, modu naturalez kutsatzen garenean, 1.000 pazientetatik bati heriotza eragingo dio, 1.000tik bati entzefalitisa

sorraraziko dio eta 20 pazientetatik bati pneumonia. Elgorriaren txertoa hartuta, milioika pertsonatik batek entzefalitisa gara dezake eta portzentaje berean erreakzio alergikoak ager daitezke. Beraz, ondorioak norberak atera behar ditu.

Txerto batzuk umeen autismoa- ren eragileak izan zitezkeela ere esan ohi da. 1998an medikuntzako aldizkari ospetsu batean horrelako berri argitaratu zen. Urte batzuk geroago artikulu horren egileek atzera egin zuten, dirudienez datu faltsuak erabili baitzituzten lana argitaratzeko. Baina horrek izugarritzko kaltea egin zion txertoak hartzeari eta urte batzuetan ume asko txertatu gabe egon ziren; badirudi gaur egun Erresuma Batuan dagoen elgorriaren izurritea horren ondorioa dela.

Oro har, txertaketa kanpainak eraginkorrak izateko garrantzitsua da txertoen estaldura egokia izatea, hau da, txertatzen diren pertsona kopurua oso altua izatea, sarritan %95 baino altuagoa izan behar da eraginkorra izateko. Horrek esan nahi du ume asko txertatzen ez badira, demagun %5 baino gehiago, txertoek duten estaldura ez dela egokia eta, beraz, mikroorganismoak errazago bilatuko dituztela kutsatu ahal izateko umeak.

Hori guztia dela eta, txertaketa osasun arloan izan dugun inbertsioa ezin hobea da. Onura hori, noski, indibiduala da, txertatzen den pertsona bera gaixotzen ez delako, baina kolektiboa ere bada. Pentsatu behar dugu pertsona gutxi batzuk ezin direla txertatu, alergikoak edo txertoen aurrean ondo erantzuten ez dutenak, esaterako. Pertsona horiek babesteko modurik errazena da inguruko pertsona asko txertatuta egotea, inguruan kutsa dezaketen oso banako gutxi egongo liratekeelako eta mikroorganismoak kontrolatua- goak; hau da, artalde efektu izenez ezagutzen dena gertatuko litzateke.

Beraz, nahiz eta txertatzeko erabakia librean izan, gurasoek beraien haurrak txertatzen ez dituztenean oso jarrera berekoa irakusten dute, ikusita onura komunitatekoa dela eta ez bakarrik pertsonala.

"BILBO ESKUALDEKO ASTE SANITARIOA"

OSAKIDETZAKO BILBO ESKUALDEA ERAKUNDEAK PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA JARDUNALDI INTERESGARRIAK ANTOLATZEN DITU URTERO. EKAINEAN ZE HAR INTERNETI BURUZKO TAILER PRAKTIKOA, ERIZAINZAKO PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO 'ZAINTEKO ZELAN MUGITU' IZENKO TAILERRA, PEDIATRENTZAT ESPRESUKI ANTOLATUTAKO JAIORERRI TXIKIEN BILAKAERARI BURUZKOA ETA BESTE BATZUK IZAN DIRA. MULTZO HONETARA, GAINERA, TERMINOLOGIARI BURUZ BILBO ESKUALDEAN MEDIKUEI ZUZENDUTA EKAINEAN EGIN DUTEN IKASTAROA ERE EKARRI DUGU.



RUBEN GARCIA

2003an amaitu zuen Pediatría espezialitatea Ruben Garciak. Hainbat osasun-zentrotan lan egin ostean, 2008az geroztik Txurdinagako pediatria da. Pediatría izateaz gain, Internet zalea ere bada Garcia. Lan eremuan informazioa eskuratzeko sareak eskaintzen zuen abantailaz jabetuta zaletu zen Internetera. 2007-2008 ikasturtean, Estatuko Lehen Mailako Pediatría Elkartearen barruan dagoen nazioarteko lankidetzara, immigrazio eta adopzioarako lantaldean jarduteko Gurutzetako Ospitaleko Pediatría Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako nazioarteko lankidetzari buruzko ikastaro batean parte hartu zuen. Hortik abiatuta, *Hij@s de Eva y Adán* (hijosdeevayadan.org) bloga sortu zuen. Osakidetzara barruan, lankideei formazioa eskaintzeko proposatu zion Medikuen Elkargoak; hala, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak iaz antolatu zuen Osasun Biltzarrerako prestatu zuen tailerra moldatu, eta hura eskaini du Etxaniz Suhiltzailearen Zentroan.

RUBEN GARCIA.

Txurdinagako pediatria da Garcia eta Interneten aditua. Horrez gain, inmigrazio eta adopzio arloak jorratzen dituen *Hij@s de Eva y Adán* blogaren arduraduna ere bada.

Zein izan da Etxaniz Suhiltzailearen Zentroan eskaini duzun tailerraren helburua?

Hain berriak ez diren teknologiek (oraindik teknologia berriak deitzen bazaie ere) lan eremuan, baita eremu pertsonalean ere, izan dezaketen eragina erakustea izan da helburua.

Zer nolako emaitzak jaso dituzu orain arte langileei helarazitako inkestetan?

Tailerraren aurretik galdera sorta bat bidali diet parte-hartzaileei, teknologia (ez hain) berriez daukaten erabileraz eta jarreraz jakiteko. Hiru inpresio nagusi ateratu ditut: gero eta gailu gehiago ditugu Internetera sartzeko, baina sareak eskaintzen dizkigun aukera asko eta asko oraindik ere ez ditugu ezagutzen; badaude bideak informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko Googleara edota web orri zehaztetara zuzenean sartzeari baino askoz eraginkorragoak direnak; web 2.0ak sare sozialek lan eremuan izan dezaketen eragin izugarriaz ez gara, orokorrean, oraindik jabetu.

Osakidetzako langileek asko erabiltzen dute Internet?

Bai, inolako zalantzarik gabe. Batez ere, posta elektronikoa eta ezagutzen dituzten webgune zehatzak erabiltzen dituzte.

Eta euskaraz erabiltzen dute?

Gutxiago, osasunarekin lotuta askoz eskaintza txikiagoa baitago. *Osatuberri* aldizkaria, adibidez, baina apustu egingo nuke gutxi direla sarean kontsumitzen dutenak, Tolosako Osasun-zentroko bloga edota Baga biga blog! dira ezagutzen ditudan adibide aipagarrienak.

Osakidetzak aukerak ematen ditu sarean lan egiteko?

Alde batetik, orain dela urte batzuk Osakidetzak martxan jarri zuen Prosa-kidetzara plataforman, bertako profesionaloi batera lan egiteko aukera ematen zitzaigun, talde irekiak zein itxiak sortzeko aukera emanez. Baina, bestetik,

oso jarrera itxia ikusten dut sare sozial nagusiak eta orokorrak (Facebook edo Twitter, kasu) edo Osakidetzatik kanpoko osasun arloko profesionalen lankidetzara errazten dituzten beste tresna batzuk erabiltzeari buruz. Batzuek denbora-pasa irizten diete horrelako tresnei, eta ez dute horien ahalmena ikusten. Argi dago, tresna hauek ahalmen handia dutela sareak eta elkarte informalak sortzeko eta elkarrekin komunikatzeko.

Oso jarrera itxia ikusten dut sare sozial nagusiak edo Osakidetzatik kanpoko osasun arloko profesionalen lankidetzara errazten dituzten beste tresna batzuk erabiltzeari buruz.

Kuriositatez, administrazioan Internet Explorerri lotuta egongo zarete beti?

Orokorrean bai, eta ez bakarrik Internet Explorerri, baizik eta bertso konkretu, zaharkitu eta arriskutsu bati ere bai, seigarren bertsoari, hain zuzen. Orain ari dira Osakidetzan (erritmo motelean) PCak sistema eragile berri-egokitzeko, baita nabigatzailea eguneratzen eta beste nabigatzaile batzuk erabiltzeko aukera ematen ere.

Sareak eremu teknologikotik haratago elkarlanerako bidea zabaltzen dituela diozu.

Eremu teknologikotik haratago (oraindik beharrezkoa da alfabetatze digitaletan sakontzea...), sareak elkarlanerako eta proiektu interesgarriak sortzeko eta aurrera eramateko aukera **paregabea** eskaintzen du, muga guztiak gaindituz (denbora, lekua, baita hierarkia ere), gizarte eta mundu hobea baten alde, baita osasunarekin lotuta ere.



ITZIAR SAN MARTIN

ITZIAR SAN MARTIN SINTAXIAN ETA HIZKUNTZALARITZAN DOKTOREA DA MARYLANDEKO (AEB) UNIBERTSITATETIK. EHUKO MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEAN EGITEN DU LAN. GURUTZETAKO ETA BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEETAN EUSKARAZKO TERMINOLOGIARI BURUZKO IKASTAROK EMAN DITU.

Ospitaleetako profesionalek eskatu zuten ikastaro hau jasotzea...

Euskara erabili nahi dute, baina ziurtasun eza handia dute terminologiari dagokionez, eta zalantzen aurrean ez daukate irizpiderik erabakitzeko zein den hobea. Horregatik, ikastaroaren helburua izan da irizpide propioa izaten laguntzea. Zuzentasunaren aldetik ondo ez dagoen zerbait balego detektatu eta hori zuzendu, baina gehiago izan da gaitasuna lantzea eta erabakiak hartzeko autonomia lortzea. Horretarako, erakutsi diet non dagoen zuzentasunaren muga hizkuntzaren alderdi linguistikoaren arabera, eta kontzeptuak adierazteko hainbat aukera dituztela, baita sarean dauden hainbat baliabide eta baliabideek ematen diguten informazioa interpretatzen ere.

Ikastaroan oso diziplina desberdinetako ikasleak izan dituzu?

Basurtun 8 izan ziren, eta Gurutzetan 7. Espezialitate askotakoak egon dira: Anatomia patologikoa, Kirurgia kardiakoa, Pediatria, Hematologia, Gai-xotasun infekziosoak, Neurokirurgia, Kirurgia plastikoa... Partaideen artean aldea egon da hizkuntza gaitasunez dagokienez, baina ez horrenbeste terminologiari dagokionez. Batzuk euskalkian aritzeko gai dira, baina ez, ordea,

batuan euskara zainduan idazteko.

Nolako balorazioa egiten duzu ikastaroaz? Zerbait gehitu edo kenduko zenuke?

Oso balorazio ona. Erabakiak lortzeko eta elkarlanean aritzeko ziurtasuna lortu dute eta kontsultak non egin eta baliabideak nola interpretatu ikasi dute. Sei orduko ikastaroa izan da, eta minimoak landu ditugu. Nik faltan bota ditut Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Terminologia Sareak Ehunduz programako **mintegien** antzekoak. Hilean behin adituekin bildu eta bi arlo lantzen ditugu: testuen hobekuntza eta kontu terminologikoak eztabaidatzeko saio laburrak. Ikastaroan bi horiek landuko nituzke.

Gainera, laster sarean Garaterm ize-neko plataforma jarriko dugu erabilgarri. Han corpus bat sortu dugu hainbat irakaslek, Igone Zabalaren zuzendaritzapean. Irakasleen testuak jaso, metodologia **erauzi**, irakasleek eurek balioetsi eta gero **glosategiak** sortu ditugu.

Zer baliabide daude sarean euskaraz bildutako terminologia kontsultatzeko?

Kasu batzuetan Hiztegi Batuak zer esaten duen begiratu behar da, baina horrek ez du esan nahi derrigorrean hitz hori erabili behar dugula gure terminoa eraikitzeko ezta baztertze-

ko ere. Begiratu beharko dugu ea bat datorren guk erabilitakoarekin. Horren ostean, baliabide terminologikoetara jo beharko genuke: euskalterm, elhuyar hiztegi entziklopedikoa... Terminoa aukeratzeko beste pista bat da zein erabiltzen den gehien. Eta beste kontu bat corpusak dira. Zientzia eta Teknologia corpora badago, baina zoritxarrez osasunaren alorrean lan txikiagoa eginda dago. Horregatik diogu beharra dagoela adituek erabiltzen dituzten testuak bildu eta corpora sortzeko. Hori da Garaterm-en helburuetako bat.

“Ikastaroaren helburua izan da profesionalek terminologiarekin lotutako ziurtasun ezaren aurrean irizpide propioa izaten laguntzea”.

Basurtuko eta Gurutzetako unibertsitate ospitaleak dira, baina badirudi ospitaleen eta unibertsitatearen artean lotura estuak falta direla...

Bai, Osasunaren Alorreko fakultateak ospitaleen inguruan egon beharko luke. Hizkuntzaren aldetik, arlo akademikoa aztertzen ari gara, baina arlo profesionalarekin lotura gutxiago dugu. Horregatik, medikuekin lan egitea lehentasuna da; eta beraiek hizkuntzarekiko interesa izatea ere bai.

Ikastaro hauen harira, oso pozik gaude arlo profesionalean lankidetzara hastearrekin, eta hori zabaldu beharko genuke. Profesionalek barneratu behar dute terminologian ez dagoela beti goitik etorritako inor esanez nola erabili behar dugun. Oso garrantzitsua da jendea konturatzea euskara erabiltzen duenean horrek duen balioa eta hizkuntzari egiten dion ekarpena, bai eta elkarlana beharrezkoa dela ere **hizkuntzalari**, aditu eta guztion artean.

Erauzi: *Extraer.*

Glosategi: *Glosario.*

Hizkuntzalari: *Lingüista.*

Mintegi: *Seminario.*

Nabigatzaile: *Navegador.*

Paregabe: *Excepcional, extraordinario.*

Sistema eragile: *Sistema operativo.*

ARGIA OSTOMIZATUEN ELKARTEA, ARRETA EMAN ETA ELKARTZEKO



OSTOMIZATUAK DIRA HESTEAK EDO PUXIKAK LAN EGITEN EZ DIETELAKO GORPUTZAREN ISURIAK BESTE MODU BATEAN KANPORATZEN DITUZTEN PERTSONAK. KASU GEHIENETAN ARAZO HORI EBAKUNTZA BATEK SORTARAZTEN DIE ETA OSASUN-ZERBITZUEK OSTOMIA HORRI EZ DIOTE JARRAIPENIK EGITEN. HORREGATIK, 1987AN ARGIA BIZKAIKO OSTOMIZATUEN ELKARTEA SORTU ZUTEN, ESPAINIAKO ESTATUAN AITZINDARIA DENA. LEHENIK ETA BEHIN, PERTSONA HAUEI ARRETA EMATEA DA HELBURUA; ETA, HORREN OSTEAN, KOLEKTIBO HORREN PREMIAK ALDARRIKATU ETA BABESTEA.

80ko hamarkadaren erdialdean Gurutzetako Ospitaleko zirujau Bienvenido Diaz doktorea ohartu zen ebakuntzak egin ostean, ostomiarekin irtetzen ziren pazienteei osasun-zerbitzuek ez zieten ostomia horren jarraipenik egiten eta horietako askok zaurian hantura arazoak izaten zituztela. Horregatik, 1987ko uztailaren 16an Argia Bizkaiko Ostomizatuen elkarteak sortu zuen eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearekin hitzarmen bat egin zuen finantzazioan laguntzeko. Hau da, elkarteak bazkideei ostomiaren jarraipena egiten zien asteko hainbat arratsaldetan.

Hala, gaur egun elkarteak presidente den Yolanda de La Hozek eta Mari Carmen Martinez de Mendibil idazkariak aitortu dute elkarte honen jatorria antzeko

beste elkarteekin alderatuta desberdina dela. “Arreta-zerbitzurik ez zegoelako sortu zen elkarteak, hori ezinbestekoa zen. Gerora, etorriko zen kaltetuen taldea sortu eta bestelakoak errebindikatzeko nahia”.

OSASUN ARRETAREN GABEZIA

Dena den, Argia elkarteak arduradunen esanetan, gaur egun ere osasun-zerbitzuek ez dute ostomiaren benetako jarraipena bermatzen, eta kaltetuak egoera berean daude oraindik ere. Horregatik, partikularrez gain, ospitale publiko eta pribatuetatik pertsona asko bideratzen dituzte elkarera. Eta, elkarteak berak hirugarren adineko egoitzetako eta bestelako zerbitzuetako langile askori prestakuntza ere eman izan die. “Osakidetzak edo beste zerbitzu

batek premia hori estaliko balu gu poz- pozik egongo ginatke, baina hori lortu artean norbaitek eman beharra dauka”.

Diaz doktoreak luzaroan eman zuen arreta-zerbitzu hori eta bere inguruan beste hainbat boluntario eta laguntzaile batu ziren. Gerora, baina, doktoreak erretiratzeko asmoa erakutsi zuenean ordurako boluntario ziren hainbat kidek batzar berria eratu zuten. “Ordura arte elkartearen zama Diaz doktorearen bizkarrean zegoenez, bazkideen inplikazioa txikia zen; eta elkarteak aurrera egitea nahi bagenuen ezinbestekoa zen konpromiso handiagoa lortzea; hala egin genuen”.

TALDE PRESTATUA

Hilero biltzen da elkartearen batzarra.

Lantalde prestatua osatzen dute.

“Arreta-zerbitzurik ez zegoelako sortu zen elkarteak, hori ezinbestekoa zen. Gerora, etorriko zen kaltetuen taldea sortu eta bestelakoak errebindikatzeko nahia”.

Prozesu horrek elkarte indartu egin zuen eta gaur egun EAEn indarrean dagoen bakarra da; hala, Euskal Herrikoak ez ezik, beste komunitate batzuetakoak ere batzen ditu. Urteko 50 euroko kuotaren truke, elkarteko kideek behar duten beste arreta medikoa dute, eta Argiak antolatzen dituen topaketa, tailer eta irteeretan parte hartu dezakete.

Astelehenetik ostegunera bitartean arratsaldero ostomizatuei zuzendutako arreta-zerbitzua dute indarrean. Bi teknikari aritzen dira zeregin horretan. Hori da elkartearen eginkizun nagusia, baina ez bakarra.

Gaur egun 2.665 pertsona daude erregistratuta elkarteko bazkide gisa, nahiz eta guztiek ez dituzten datuak eguneratu. 2012an, esaterako, 517 pertsonari egin zieten arreta eta telefono bidezko kontsultak 1.425 izan ziren.

Behin arreta medikoa bermatuta, Argiak bestelako helburuen alde egiten du. Halabeharrez, gizarteari jakinarazi nahi diote ostomia eta pertsona ostomizatua zer diren. "Guk ez daukagu minusbaliotasunik eta ez gara gaixoak, ostomia edo poltsa eramaileak baizik. Horregatik, jendeak hori jakitea nahi dugu; izan ere, etorkizunean bera edo bere albokoa ere ostomizatuak izan ahal dira".

OSTOMIZATUAK IKUSGARRI EGITEA

Elkarteko arduradunek ostomizatuak diren pertsonen ikusgarritasuna eta babesa eman nahi diete, ebakuntza horien ostean beraien gorputza eta irudia dezente aldatu ahal direlako. "Behin baino gehiagotan eskatu diegu Bizkaiko ospitaleetako arduradunei eta Eustati ostomizatuak diren pertsonen kopuruak emateko, baina ez dizkigute ematen". Datu horiek asko lagunduko lukete gizartearen aurrean ostomizatuaren arazoa ezagutarazten, baita ostomiaren ondorioz irten ezinean gelditzen direnei babesa ematen ere.

Ostomizatuaren elkartetik badakite ebakuntza izan ostean jende askok bere bizitza asko mugatzen duela eta horren kontra egin nahi dute, ahalik eta bizimodu arrun-

tena egin dezaten. "Neurri batean edo hasierako kolpean behintzat, bizitzako alderdi asko berriro planteatu behar izaten dira, baina besterik ez", diosku elkarteko presidente Yolanda de La Hozek, bera ere ostomizatua baita.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

"Zer esango diozu poltsa bat jarri dioten 14, 15 edo 20 urteko gazte bati, kalera ez irteteko? Sexu harremanik ez izateko? Ustez bizitza aldatuko dion egoera horren aurrean hasieran norbaiten laguntza behar du, beste batzuei entzutea", azpimarratu du de La Hozek. Horregatik, orain dela urtebete laguntza psikologikoaren tailerra martxan jarri zuten, nahi duten bazkide guztiei arlo horretan babesa eta laguntasuna emateko.

ARDURADUNAK

Argazkian Mari Carmen Martínez de Mendibil idazkaria eta Yolanda de la Hoz presidentea (betaurrekoekin) elkartearen alde lanean burubelarri.



ZER DA OSTOMIA?

Heste edo puxikaren bideratze kirurgikoa da, ohiko zuloak ez diren azaleko beste puntu batetik isuriak egiteko. Ostomiak kasu gehienetan gaixotasun larriak (minbizia, kolitis ultzerosoak, Crohn gaitza...) ezabatzeko egindako ebakuntzen ondorio izan ohi dira. Ostomiak segurtasun gabezia sor dezake eta kaltetuaren familia giroan, lanean eta gizartearen eragin, bakar-dadera bultzatuz. Baina laguntza sanitario egokia jasota, %99an bizitza arrunta egin daiteke. Kalkuluen arabera, 1.000 pertsonetatik 3 dira ostomizatuak.

Argia Bizkaiko Ostomizatuaren Elkarte

Areilza doktorea 36, barruko eskailera 1. ezkerre. 48010 Bilbo
Tel.: 94 4394760
correo@ostomizadosargia.com
www.ostomizadosargia.com

VISIBILIZAR Y NORMALIZAR LA IMAGEN Y EL DÍA A DÍA DE LOS OSTOMIZADOS

En la mitad de la década de los 80, el doctor Bienvenido Díaz, cirujano del Hospital de Cruces, fue consciente de que todos aquellos pacientes ostomizados -aquellos a los que se les aplicaba una derivación del intestino o vías urinarias a un punto diferente los orificios naturales- no recibían suficiente tratamiento para hacer seguimiento de la ostomía por parte de los organismos de salud. Por ello, decidió crear Argia Asociación de Ostomizados de Bizkaia en 1987 para atender a todos los ostomizados de la asociación.

Díaz contribuyó a esta tarea durante numerosos años manteniendo a su vez la vigencia de la asociación. Pero, posteriormente, como consecuencia de la jubilación del doctor, socios y voluntarios de Argia acometieron la tarea de refundar la junta y, además, de seguir garantizando la atención sanitaria, continuar trabajando en la normalización del día a día de estos afectados e incrementar visibilidad en la sociedad. Esta asociación, pionera en el Estado español, atiende a personas tanto de Bizkaia, como de provincias y comunidades cercanas.

KARPIN, ANIMALIAK EZAGUTU ETA HAIEN ARAZOEZ KONTZIENTZIATZEKO NATURA PARKEA

KARRANTZAKO HARANEAN, BIZKAIAN, IA KANTABRIAREKIN MUGAN DAGO KOKATUTA KARPIN ANIMALIEN HARRERA GUNEA. DAGOENEKO BERE HABITAT NATURELEAN BIZI EZIN DEN FAUNA AUTOKTONOA ETA EXOTIKOA BATZEN DU; GUZTIRA, 53 ESPEZIE TAKO 400 ANIMALIA INGURU. BERTAN KOKATUTAKO DINOSAUROEN TXOKOAK ERE ARRAKASTA HANDIA DU. HARRERA GUNE HONEK EZ DU LAGUNTZARIK JASOTZEN; HORTAZ, ANIMALIEN JANA ETA LANGILEEN SOLDATAK SARREREI ESKER ORDAINTZEN DIRA.

Karpin Abentura animalien harre-
ra gunea Karrantzan El Barbero
izenez ezagutzen den 19 hekta-
reako lurzoruan kokatuta dago.
Lekua paraje ederra da eta landa-
retza eta fauna ikusgarriak ditu.
Harrera gunea oinez ikusi beharra
dago, bertara ezin baita ibilgailu-
rik sartu. Bisitariak eskertzen dute
barruan autorik ez egotea eta na-
turaz bere horretan gozatu ahal
izatea.

Karpinen sorrera 1995ekoa da,
baina hastapenetan animaliak
berreskuratzeko gunea izan zen,
Xabier Maiztegui Fundazioak ku-
deatutakoa eta Garaiko (Bizkaia)
gunearen sostengu gisa. Gerora,
fundazioak erakusketa gunea ere
jarri zuen, 2000an Karpin kudea-
tzeari utzi zion arte. Hala, Aldun-
diak lehiaketa publikora ater-
a zuen eta 2000an Iniciativas Am-
bientales de Euskadi enpresak
hartu zuen parkearen kargu.

2000. URTETIK HARRERA GUNEA

Hala, kudeatzaile berriak animaliak
berreskuratzeko lana alboratu eta
fauna autoktono eta exotikoaren
harrera gune bilakatu zuen Karpin.
Bertan, kanpoko eta bertako ani-
malia batuta, 53 espezie aurki dai-
tezke; guztira 400 animalia inguru
bizi dira han.

Espezie bakoitzak instalazio
zabal bat dauka eta, exotikoen ka-
suan, horiek berotasuna bermatze-
ko guneak ere badituzte. Animalia
gehiago hartu aurretik, ziurtatzen
dugu hemen batutakoen kalitatez-
ko bizitza egiteko baldintzak ber-
matu ditzakegula. "Askoren artean
adibide bat hartzearen, Gibralt-
arreko makako bakoitzarentzat 120
metro koadro aurreikusita ditugu,
horietako bakoitzak belar eta in-



tsektu nahiko izan ditzan. Bestela,
aktibitateak egiteko leku nahiko
eduki ezean, animalia horiek Kar-
pinera ekarri aurretik bizi izanda-
koaren estresa eta oldarkortasuna
bueltan etor daitezke", azaldu du
harrera guneko arduradun Pedro
Abadek.

Askotariko espezieak daude
Karpinen. Batzuk autoktonoak,
ehiztariak edo autoek zaurituta-
koak; eta beste batzuk exotikoak,
maskota gisa hartu ondoren baz-
tertutakoak edo konfiskatutakoak:
oreinak, mufloiak, adarzabalak, or-
katzak, guanakoak, kanguruak, he-
gazti harrapari ugari, otso iberiarra,
puma, pantera beltza, krokodiloa,
basakatuak, hartz arreak, ipar-ka-

EGUNERO ZABALIK

Karpin harrera gunea
urte osoan bisitatu
daiteke. Gabon egun
zehatz batzuetan izan
ezik. Aste Santua au-
rretik, gainera, bisita
gjidatuak eskaintzen
dituzte.

tamotzak, Gibraltarreko makakoak,
titi tximinoak, mota askotako dor-
tokak, iguanak, dingoak, arantzur-
deak, ostrukak, ñanduak, hudoak,
emuak...

ANIMALIEN IZENAK ETA GERTAERA ZEHATZAK

Harrera gunearen helburu nagusia
da animalia horien arazo zehatzak
ezagutzera ematea eta jendea kon-
tzientziazte. Horretarako, anima-
lia bakoitzari izena eman eta han
egotearen zergatia azaltzen dute.
"Ume bati legez kanpoko ehizari
buruz hitz eginez gero, berehala
ahaztuko du kontua; baina, aldiz,
hanka moztuta duen basakatu
edo hegan egin ezin duen harrapa-
ria samur gogoratuko ditu. Hala,
askoz hobeto barneratuko du ani-

DATUA

53

espezie aurki daitezke; guztira 400 animalia inguru bizi dira han.

dutela animalia hori biziduna dela eta sufritu egiten duela. Are gehiago, aholkatzen dute norbere buruari hainbat galdera egitea: maskota egunero zaintzeko denbora nahikoa duen, zer nolako albaitaritza zainketa behar den, zer elikadura, instalazio mota, zer egin asteburuan edo oporretan kanpora joaterakoan... Behin hori guztia aztertuta hartu ahal izango da erabakia.

te: norbaitek zauritutako animalia autoktonoa aurkitu badu, erakunde publikoen bitartez, berreskuratze gune batekin harremanetan jarri beharko da. Aldiz, animalia exotikoa bada, Karpinera dei dezake hango arduradunen aholkuak jaso edo animalia parke horretara eramateko.

BI ORDUTIK GORAKO IBILALDIA

Karpin urte osoan dago zabalik, Gabonetako jai egun zehatzetan izan ezik.

Berau bisitatu eta animalia guztiak ikusteko bi ordu behar izaten direla argitu dute, baina familia eta talde askok egun erditik gora egiten dutela bertan, inguruaz gozaten.

Udazkenetik Aste Santura bitartean, gidariak eskola taldeetako bisitariak laguntzen ditu ibilbide osoan azalpenak emanaz. Aste Santutik aurrera, ordea, bisita kopurua asko handitzen da eta Karpinek ez dauka baliabiderik talde guztiak laguntzeko. Horregatik, sasoi horretan parkea bisitatzen duenak bideo bat ikusi eta gidari baten azalpenak jasotzeko aukera izango du, baina gidariak ez dio bisita egiten lagunduko. Horregatik, aholkatzen dute bisita Aste Santu aurretik egitea.

ESKOLETAKO TALDEAK ETA FAMILIAK

Urte onenetan 60.000 bisitari ere izan dituzte Karpinen; aspaldi honetan, tamalez, krisiaren eraginez eta aurtengo euri egunen ondorioz, bisitari gutxiago joan da parkera. Euskal Herrian ez ezik, Kantabrian, Burgosen eta Errioxan ere gero eta izen handiagoa hartu du; Madrildik eta Kataluniatik ere jende gehiago etortzen da. Eta atzeritarren artean, frantsek, ingelesak eta alemanak dira gehientsuenak.

Adin tarteari dagokionez, oso tarte zabalari ematen diote erantzuna: ume txikiak zein adinduak. Hala ere, talde handiena eskoletako txangoek eta familiek osatzen dute.

Maskoten arazoa uste baino handiagoa dela aitortu dute. Gainera, espezie exotiko horiek bertako bioaniztasunaren galera eragiten dute. Horren adibide dira aspaldian izugarri zabaldu diren mapatxe eta dortokak. "Tigreak edo lehoiak hartzeko deitzen digute, baina ezin dugu. Ez daukagu animalia horientzat egokitutako instalaziorik, eta ez ditugu bertako langile eta bisitariak arriskuan jarri nahi. Jende askok ditu tigreak eta lehoiak eta, jakina, ez dituzte baldintza egokietan zaintzen".

AHOLKULARITZA ETA ANIMALIEI HARRERA

Une honetan Karpinen animalia oso gutxi hartzeko lekua badute ere, argibide hauek eman dituz-

malia askok bizi duten zorigaitza eta hurrengoan parkera etortzen denean animalia horri buruz galdetuko digu".

MASKOTAK HARTZERA KOAN, KONZIENTZIAZIOA

Animalien legez kontrako salerosketa, maskotak era bidegabean edukitzea, legez kontrako ehiza eta bioaniztasunaren galera dira Karpineko arduradunek salatzen dituzten arazo nagusiak.

Maskoten arazoa, adibidez, oso presente dute. Ez daude maskotak edukitzearen kontra, eta jakin badakite jendeak erosi nahi baditu norbaitek salduko dituela. Horregatik, bisitariei argi eta garbi azaltzen diete maskota bat eskuratzekoan oso argi izan behar



DINOSAUROAK

Animalien harre-
ra guneaz gain,
dinosaurioen eta
horien osteko
faunari buruzko
Terrasauro eta
Gastornisland
guneek, arrakasta
handia dute gaz-
tetxoenen arean.

DINOSAUROEN TXOKO ARRAKASTATSUA



Animalien harrera guneari eta bisitatu ezin den animaliak zaintzeko guneari, 2003an Terra Sauro izeneko gune berria gehitu zioten. Bertan hainbat dinosauroen erreplikak jarri zituzten, benetako tamainan, eta indusketa paleontologikoen berri ematen duten gizaki itxurako robot batzuk ere bai.

Gerora, 2004an, Gastornisland gune berria estreinatu zuten. Hala, Terrasauroren bukaeraren muga meteorito batekin seinalatuz, dinosauroak desagertu ostean bizi izan ziren espezieen berri ematen da.

Puntako teknologia erabilia, sortutako bi gune horiek arrakasta handia dute gaztetxoeren artean. Izan ere, Karpineko arduradunek gogoratu digute, gaur egun, dinosauroei buruz zabal eta luze irakasten dietela eskoletan eta ikasleek interes handia erakusten dutela haiekiko.

Karpineko arduradun Pedro Abadek onartu digu dinosauroen txoko honi esker jende gehiegok bisitatzen duela parkea. Eta, nolabait, ume eta gaztetxoak animalien inguruan hezteko beste modu bat ere badela.



CENTRO DE ACOGIDA Y CONCIENCIACIÓN CON LOS ANIMALES

El Karpin es un centro de acogida animal que abarca tanto fauna autóctona como exótica y está situado en el Valle de Carranza, muy cerca de Cantabria. El centro cuenta con más de 400 animales de 53 especies diferentes, enclavado en una enorme finca visitable solo a pie.

Este centro, abierto durante todo el año, tiene como función principal, además de asegurar una óptima calidad de vida a estos animales, la de concienciar a la población de los problemas que acarrear la caza furtiva, el tráfico ilegal de animales, así como el mal cuidado de las mascotas.

También cuenta con una atracción que encandila a los más pequeños, orientada a los dinosaurios y a la fauna que los sucedió. Esta atracción la componen Terrasauro y Gastornisland, dos zonas, cuyas replicas a tamaño real de los diferentes saurios explican la importancia de estos animales.

Actualmente, este centro de acogida animal se financia única y exclusivamente con las entradas vendidas, ya que no cuenta con subvenciones o ayudas públicas de ningún tipo.

MIREN ORMAETXEA | BILBO ESKUALDEKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

BERMEOTAR HAU 1993AN HASI ZEN OSAKIDETZAN LANEAN LEHEN MAILAKO ARRETAN, ARABAKO ESKUALDEAN. BEZEROEI ARRETA EGITEKO LANGILEEN ARDURADUNA IZAN ZEN. ERAKUNDE ZENTRALAREKIN LAN PROZESUAK ETA ESKUALDEKO ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA **JORRATZEN** LAN HANDIA EGIN DU, ETA 2002. URTETIK BILBO ESKUALDEKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA DA. EUSKALTZALE **AMORRATUA** DA ETA, ESATERAKO, BERMEOKO ELEIZALDE IKASTOLAKO PRESIDENTEA DA.

1 | Zuzendari euskalduna, pres-tatua, egunean dagoena eta ibilbide profesional luzekoa. Zu zara Osakidetzako zuzendarien estereotipoa?

Langileen artean ez dago estereotiporik. Pertsonaleko zuzendari bati eskatzen zaiona estereotipatua egon daiteke, baina norberak bizitako esperientzien eta erakundeak emandako aukeren arabera lantzen dugu gure bidea.

2 | Zure erakundea, Bilbo Eskualdea, aitzindaria izan da berrikuntzak martxan jartzeko orduan: kudeaketa sistemak, proiektu berritzaileak...

Urte askotako lana da. 2003an erakundearen emaitzak hobetzeko eta gizarteari osasun arreta ona erantzukizunez eskaintzeko, gure kudeaketa ereduaren berrantolaketa beharrezkoa zela ondorioztatu genuen.

3 | Zein da horretarako giltza?

Langileen partaidetza eta inplikazioa bermatzen ahalegindu gara. Hori izan da gure indargunea: parte-hartzea, eta langileek proiektu berritzaileekiko izan duten ardura zuzendaritza taldearen konfiantza eta sostenguarekin.

4 | Zertan aldatu da Osakidetzazken 10 urteotan?

Erakundea, gizartea bezala, aldatzen doa. Gure zeregina ez da aldatu, baina bai gizartearekiko harremana. Ezinbestekoa da hiritarra osotasunean ikustea, ezin dugu biztanlea paziente bihurtzen den unera arte itxaron. Horretarako, Osakidetzako gehiago gizarteratu behar da eta beste eragile batzuekin lan egin: udalak, aldundiak, elkarteak, unibertsitateak...

5 | Nola ikusten duzu geroa giza baliabideen beharrianetatik eta arreta sanitarioetik?

Osakidetzako erakundearen arteko harremana ere aldatu egin behar da, hiritarra helburu

hartuta. Erakundearen aldaketa gauzatzeko ezinbestekoa da langileen parte-hartzea eta, horiek horrela, herritarrekin harremanak lantzeko ahalmena irmotuko da.

6 | 2007an ezagutzaren kudeaketa hobetzeko estrategia diseinatu zenuten...

2006an egindako kanpo ebaluazio batetik jaso genuen Osakidetzaren baitan langile bakoitzak ezagutza handia duela, baina ez dela beste langileekin partekatzen. Argi ikusi genuen erronka: ezagutza partekatzeko profil guztietako lantaldea bultzatu eta Ezagutza tresna sortu genuen.

7 | Gerora Osakidetzako osora zabalik duzue...

Bai, Bilbo Eskualdean jarri genuen martxan, baina, gaur egun, Osakidetzako osora zabalik dago. Eta emaitzak oso onak dira: 6.057 erabiltzaile, 51.099 bisita eta 246.722 orri ikusita..

8 | Nola dago euskararen normalizazioa Bilbo Eskualdean eta oro har Osakidetzan?

Nahi baino geldoago. Helburu nagusia biztanleen hizkuntza eskubideak bermatzea da eta, oraindik, horretan jardun behar dugu egunero. Euskara planaren ebaluazioaren emaitzek erakutsi dute oraindik egitekoak baditugula, batez ere kanpo eta barne harremanei dagokienez. Bilbo Eskualdean ere gauza bera gertatzen da. Lanean gogor ari gara eta lan horren emaitza laster ikusiko dugu, aurrean, berriro aurkeztuko garen Bikain ziurtagiria lortzeko kanpo ebaluazioaren bitartez.

Amorratu: *apasionado, acérrimo.*
Geldu: *lento, sin fuerzas.*
Indargune: *punto fuerte.*
Jorratu: *trabajar, cultivar.*
Sostengu: *apoyo, ayuda, sostén.*



“EZINBESTEKOA DA OSAKIDETZA GEHIAGO GIZARTERATZEA ETA HIRITARRA OSOTASUNEAN IKUSTEA”



**“SENTIMENDUAK AMA
HIZKUNTZAN
ASKOZ ERE HOBETO
ADIERAZTEN DIRA”
IBAN GARATE**

IBAN GARATE AKTORE ETA AURKEZLE AZKOITIARRA OSO GAZTE HASI ZEN TELEBISTA MUNDUAN. XABIER MUNIBE IKASTOLAKO ANTZERKI TALDEAN HASI ZEN ETA ONDOREN ETBKO CASTING BATEAN PARTE HARTU ZUIEN. 15 URTEREKIN 'GOENKALE'-N HARTU ZUTEN. ORDUTIK HARA ETA HONA IBILI DA, TELEBISTAN ETA ZINEMAN. IMANOL URIBEREN 'MIEL DE NARANJAS' IZAN DA GARATEREN AZKEN LANA.

GASTEIZEN BIZI DA

Azkoitiarra izan arren, Iban Garate Gasteizen bizi da gaur egun.

Eguneroko telesail arrakastatsu batean hasi zinen telebistan. Nola-koa da egunero jendearen etxean sartze hori?

Jendearen etxean sartzen zara egunero, eta politena da jendeak etxekotzat zaituela. Estimatzen zaituzte, eta zure lana ere estimatzen dute. Ulertzen dut nire lanaren zati bat ezagun izatea dela eta horrekin bizi behar dudala. Baina zerbait aldatu ahalko banu, momentu jakin batzuetan, hori aldatuko nuke. Gazteagoa nintzenean banituen kezka horren inguruan: oso zuzena ez zen zerbait egiten banuen eta jakiten bazen, horrek ze eragin izango ote zuen. Beti izan naiz oso arduratsua, eta beharbada, horregatik izango da.

Goenkale utzi eta Deustun hasi zinen ikasten.

Administrazio eta Zuzendaritza ikasten hasi nintzen. Gero konturatu nintzen komunikazio mundua gustatzen zitzaidala; gainera, mahaiaren gainean *Betizu* jarri zidaten. Eguneroko zuzeneko programa bat. Iruditu zitzaidan ETBk garai hartan apustu sendoa egin zuela 20 urteko gazte bati eguneroko zuzeneko bat eskainiz. Ardura eta aukera handia izan zen. Hala, ahaleginak komunikazio mundura bideratu behar nituela kontuan hartuta, pentsatu nuen ondo legokeela Komunikazioa ikastea.

Zuzenekoetan asko ikasiko da!

Bai, niretzat, telebistagintzan, eskola onena *Betizu* izan da. Egunero 40 minutuko programa egiten nuen, tartean marrazki bizidunak sartzen ziren eta lehiaketa ere bazegoen. Gazteek deitzen zuten eta harreman zuzena geneukan eurekin, **hitanoa** sartzen ere saiatu ginen, harreman zuzenagoa izateko. Uste dut funtzionatu zuela. Gaur egun, ez da horrelakorik egiten. ETB3ra bideratu dute umeen programazioa, baina marrazki bizidunak bakarrik eskaintzen dituzte.

Asier Altuna eta Telmo Esnalena *Aupa Etxebeste!*-rekin sartu zinen zinema munduan.

Euskal zinemagintzan *Aupa Etxebeste!* mugarri txikiak bat



izan zen. Urte asko ziren ez zela euskarazko produkziarik egiten. Zinema beste hizkuntza bat da, eta hizkuntza horretara egokitu behar izan nuen. Altuna eta Esnal irakasle onak izan ziren: “Garate, motzean!” esaten zidaten. Esaten baita telebistan aktoreok gauzak handitu egiten ditugula, eta kei-
nurik txikiena ere zinema pantaila batean handi ikusten da. 100.000 lagun eraman zituen aretoetara. Ea orain ze filmak eramaten dituen 100.000 lagun zinemara!

“Keinurik txikiena ere zinema pantaila batean handi ikusten da”.

Ordutik hainbat lan egin dituzu. Azkena *Miel de Naranjas* izan da, Imanol Uriberekin, Madrilan.

Aldatzen dena merkatua da. Egia da pelikula handiago dela, ondorioz kopia gehiago egiten direla eta zinema areto gehiagotara iristeko aukera dagoela. Euskal Herrian egiten den film batek 15 kopia izan ditzake, horrek esan nahi du aldi berean 15 zinema aretotan eskaintzen dela. *Miel de Naranjas*-ek, agian, 150 kopia izango zituen.

Neurria da aldatzen dena. Askotan egiten den akatsa da diruz handiago den film bat hobea dela pentsatzea; baina, hemengo film txikiak ere handiak bezain onak izan daitezke. Eta hemengo aktoreak ere hangoak bezain onak dira.

Gazteleraz egin duzu lan Uriberekin, eta baita *El Secreto de Puente Viejo* telesaillean ere. Nola moldatu zara?

Zalantzarik gabe gazteleraz oso ondo konpontzen naiz. Ez daukat arazorik gazteleraz komunikatzeko, baina iruditzen zait sentimenduak ama hizkuntzan askoz ere hobeto datozela. Ez da berdina nire ahotik *Ama maite zaitut* edo *Te quiero mama* esatea. Erabat ezberdina da. Erronka puntu hori badauka, zure inguruko espresioak ez direnak esan eta ondo esatea. Beharbada, euskalduna naizenik ez dakienari ez zaio irudituko, baina norberari arraroa egiten zaio.

Oso ondo bereizten dituzu, zure euskalkia eta euskara batua.

Katearen politika da hori. ETBK aukeratu du estandarra egitea albistegietan, telesailetan... ni horren alde nago. Sarritan, zenbait erregistro lortzeko, umorea egite-rakoan, adibidez, euskalkia tresna

‘MIEL DE NARANJAS’
filmean lan egin zuen Imanol Uribereren zuzendaritzapean, besteak beste, Karra Elejalde eta Blanca Suarez aktoreekin.

ona izaten da, esaeraren grazia euskalkiak ematen dion doinuaren egon daitekeelako.

“Gaur egun ez da hainbeste zine ekoizten eta telebistak ez dauka hainbeste baliabiderik”.

Etorkizunari begira, nahiko ezkorra zara.

2013 honetan ez da hainbeste zine ekoizten eta telebistak ez dauka lehen besteko baliabiderik. Hor-taz, norberak bere buruari galdetu behar dio ea bere lehenengo aktibitate izango den komunikazio mundukoa edo beste zerbaitetan hasi beharko duen. Hori onartzea oso zaila da, batez ere azkeneko 16 urteetan horretan jardun dudanean.

Ama hizkuntza: *Lengua materna.*
Arduratsu: *Responsable.*
Ezkor: *Pesimista.*
Hitano: *Tuteo, tratamiento familiar.*
Mugarri: *Hito.*
Telesail: *Teleserie.*

'LARRIALDIK EUSKARAZ', EUSKARAZKO GIDEN ALE BERRI BAT



OSAKIDETZAREN EUSKARA ZERBITZUAK EUSKARAZKO GIDA BAT ARGITARATU DU LARRIALDIETAKO, EMERGENZTIETAKO ETA ETENGABEKO ARRETA-GUNEETAKO PROFESIONAL EUSKALDUNENTZAT.

Osakidetzaren euskara-zerbitzuak *Larrialdiak euskaraz* argitaratzea-ekin jarraipena eman dio iaz hasitako gida-sortari. *Osatuberriren* 3. zenbakian eman genizuen euskarazko gida haien ezaugarrien berri. Orduko bilduma hartan, lehen mailako Arretari bakarrik heldu zioten, eta oraingo honetan, berriz, urgentziatzeko osasun-laguntzan han-hemen diharduten langileak hartu dituzte kontuan, **xede-taldeko** guztiak nolabait izendatzearen.

ZERBITZU-ERAKUNDEEN ESKAERA

Euskarazko gidaliburuak argitaratzea Osakidetzaren euskara-planaren ebaluazio partzialaren ondorioz planteatutako hobekuntza-neurria izan zen. Izan ere, hainbat zerbitzu-erakunde la-

gungarritzat jo zuten osasun-arlo bakoitzean pazienteekin maiz erabiltzen diren esaldi eta terminoen bildumak osatzea, pazienteekin euskaraz egiten duten profesional euskaldunen zantzak eta beldurrak uxatzeko eredu onak eskaintze aldera. Horren ondorio dira, beraz, aurreneko hiru gidak, Lehen Mailako Arretakoak, eta baita *Larrialdiak euskaraz* bera ere.

ELKARRIZKETAK OSORIK ORAINGOAN

Gaur arte argitaratutako lau gidaliburuak bina atal nagusi daukate: elkarrizketak eta hiztegia. Bada alderik, ordea: Lehen Mailako Arretako hiru gidetan, batez ere Osakidetzako profesionalen galdera, azalpen, aholku eta gomendioak jasotzen ziren elkarrizketen atalean;

LAUGARREN GIDA

Lehen mailako arretako hiru gidei larrialdiei dagokienez gehitu zaie.

“Euskarazko gidaliburuak argitaratzea Osakidetzaren euskara-planaren ebaluazio partzialaren ondorioz planteatutako hobekuntza-neurria izan zen”.

Larrialdiak euskaraz gidan, berriz, elkarrizketak osorik ere jaso dituzte.

Hartara, egileek berek diotenez, elkarrizketen **testuingurua** argiago aurkezten da, profesionalak eta pazienteek elkarri nola ‘entzuten’ dioten, txandak nola hartzen dituzten, eta abar. Era askotako testu-motak ageri dira elkarrizketetan: deskribapenak, azalpenak, aholkuak, gomendioak edo aginduak, besteak beste, denak batera, medikuarengana jotzeko ‘arrazoi’ baten inguruan.

Elkarrizketak horrela aurkeztuta, biziago ageri dira, interjekzioz josiak, **etenez**, errepikapenez, loturaz, etb., nahiz eta, paperean aurkezten direnez, ahozko komunikazioan funts-funtsezkoak diren beste hainbat faktore jaso gabe gelditu diren: isiluneak, keinuak, irribarreak, begiradak...

PROFESIOALEN PARTE-HARTZEA

Elkarrizketak ‘asmatzeko’, metodologia bera erabili da euskara-zerbitzuko ‘bisitariak’ hartu dituzten zentro guztietan:

- aurrena, profesional sanitarioekin batera, egoera komunikatibo arruntenak edo ohi-koenak identifikatu dira,
- eta, ondoren, elkarrizketak gauzatu dira, rolak profesionalen artean banatuta.

Bi izan dira beti protagonistak: bata, profesionala (112ko medikua, EAG-

ko medikua, triajeko erizaina eta larrialdietako zerbitzuko medikua; gidaren 1.3/1.4/1.5 eta 1.6 ataletan, **hurrenez hurren**), eta, bestea, herritarra (112ra deitu duena edo larrialdietako zerbitzu batera jo duena, esaterako).

Ondorengoko lanak Osakidetza euskara-zerbitzuak egin ditu (transkribatu, txukundu...), eta, bukatutakoan, elkarrizketetan parte hartu duten profesionalen gainbegiratzeko eskatu die, gidaliburua profesionalen eskura ipini aurretik.

PROFESIONALEI GONBIDAPENA

Gidaliburua ekainaren amaieran banatu ziren zerbitzu-erakundeetan. Hortik aurrera, behin gida bakoitza bere lan-arloko langile guztiei banatuta, haiei lagungarri suertatzea nahi luke Osakidetza euskara-zerbitzuak, aurreko gidak banatu zirenean bezalaxe. Oraingoan, gainera, aurrerago joaz, nor bere lantokian antzeko esperientzia egitera animatu nahi ditu, aipatu berri dugun metodologiari jarraituta.

Egileak sinetsita daude aberasgarria gerta daitekeela taldean bildu eta antzeko egoerak lantzea: elkarrizketak asmatzea, dramatizatzea, grabatu eta aztertzea. Halako saioek oztopoak identifikatzeko balio lezakete, zalantzak argitzeko edo gidaliburuan jasotako hainbat hitz eta esapide **tokian tokiko** euskarara egokitzeko; alegia, benetako 'hutsuneak' betetzeko.

“Larrialdiak euskaraz gidan, berriz, elkarrizketak osorik ere jaso dituzte”.



KASU PRAKTIKOA: MEDIKUAREKIN, ETENGABEKO ARRETA-EGUNEAN.

HOTZERIA

Bost egun daramatza makal samar eta medikuarengana joan da.

– Arratsalde on!

– Baita zuri ere. Hara, bost bat egun daramatza katarroarekin.

– Zer nabaritzen duzu? Ba al duzu eztulik, mukirik, eztarriko minik...?

– Eztula, batez ere, eta mukia, eta traga-tzean min hartzen dut.

– Sukarrik izan duzu?

– Ez dakit, ez dut neurtu, puskatu egin zait etxeko termometroa. Gorputzean hotza eta beroa sentitzen dut.

– Lehendabizi tenperatura hartuko dugu. Katarroaren kontrakorik hartu al duzu?

– Ez, ez dut botikarik hartzen neure kabuz. Horrexegatik, etorri naiz ea zer esaten didazuen.

– Ea nola duzun eztarri hori. Ireki ahoa, faborez.

– Lasai egon, dena ordenean dago. Paracetamolaganduko dizut hobeto sentitzeko, baina, jakina, katarroak bere prozesua dauka... Onera egin ahala, hobeto sentituko zara. Bitartean, esan dizudan bezala, hartu paracetamola egunean bizpahiru aldiz, eta pixkanaka-pixkanaka suspertzen joango zara.

Xede-talde: *Grupo meta.*

Testuinguru: *Contexto.*

Eten: *Interrupción.*

Hurrenez hurren: *Sucesivamente.*

Tokian tokiko: *De cada lugar.*

Hotzeria: *Constipado, resfriado.*



JUAN GONDRA
REZOLA

Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurto Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.



ZELESTINO AGUIRRESAROBEN BARITONO OSPETSUA ETA MEDIKUA

Badaude Euskal Herrian medikuntzatik kanpo fama handia lortu duten mediku batzuk; haien artean opera kantari bat **gailentzen** da: Zelestino Aguirresarobe Zatarain, "Sarobe". Nahiz eta gaur egun ezezaguna izan, bere garaian gure aitona-amonek oso entzutetsua izan zuten, batez ere opera zaletuen artean. Horren harira, bere bizitzaren **pasadizo** batzuk ikusiko ditugu.

IKASLEA

Zelestino 1892 urtean jaio zen Orion, non bere aita mediku zegoen. Txikitatik musikazale amorratua izan zen; zortzi urterekin bazekien pianoa jotzen, San Nikolas elizan abesten zuen, baita euskal jaietan ere; eta han lortu zuen bere lehenengo dirua: 30 errealeko saria Orioko euskal jai batean. Batxilergoa bukatu ondoren, Madrilerara joan zen Arkitektura ikastera, eta Madrilen ere elizetan kantore izan zen; baina arkitekturaren marrazketa ez zuen gustuko eta Medikuntza ikastera erabaki zuen. Horiek horrela, Valladolideko Fakultatean bete zituen ikasketak, baina, aldi berean, musikan ere baziharduen eta unibertsitatearen eusko abesbatza antolatu zuen Valladoliden, inguruko hirietan kantatzeko nahian. Udako oporretan, aldiz, Ignazio Tamuyo maisuarekin kantua ikasten zuen Donostian, eta Tamu-

yok berak medikuntzari utzi eta baritono izateko gomendioa egin zion.

ABESLARIA

Horretarako, pasadizo bat izan zen erabakigarria: behin, Romanones kondearen Oartzuneko landetxean Aguirresarobek abestu zuen, eta politikariari asko gustatu zitzaion bere kantatzeko era. Garai hartan, Romanonesen lehen-gusua zen Mattia Battistini opera kantariantzat maisua zen Italian, eta berearekin ikasteko aukera eskaini zion kondeak. Hala, Gipuzkoako Diputazioak diruz lagunduta urtebete eman zuen Battistinirekin, eta 1919an bueltatu zuen Bartzelonako Lizeora lehendabizi arrakasta handia lortuz. Harrezkero, mundutik zehar ibili zen opera kantatuz edo kontzertuak eta **errezitaldiak** emanez.

Bartzelonan bertan bizi bazen ere, bere jaioterriarekiko lotura begi bistakoa zen, sarri hurbiltzen baitzen bertara, batzuetan, opera edo kontzertuetan abesteko eta beste batzuetan, aldiz, bisita egiteko. Halako bisita batean heriotza helduko zitzaion premiazko ebakuntza baten ondoren, eta bere jaioterritik hurbil dagoen Zarautz herrian hil zen. Aste gutxi batzuk lehenago, Donostiako Antzoki Zaharrean Guridiren *Amaia* opera kantatua zuen, agian, jaioterriarekiko bere azken agurra.

GARAIKO ERAGILEAK


Ezkerretik eskumara, 1924an ABCn kale-ratutako Celestino Aguirresaroberen erretratua eta karikatua; Bartzelonako Lizeoaren irudia 40ko hamarkadan; Ignazio Tabuyo Donostiako maisua; eta Battistini, Aguirresaroberen maisua.

MEDIKUA

Medikuntza arloa oso gutxi landu zuen. Baritono karreraren hasieran kazetari batek galdetu zion ea **goibel** zegoen medikuntza alde batera uzteagatik, eta Zelestinok baietz erantzun zion, medikuntza asko gustatzen zitzaiola, eta, egunero Patologia medikoa ikasten jarraitzen zuela. Dena dela, Ikastera mediku lana baino gehiago gustatzen zitzaiola gehitu zuen. Horren ostean, kazetariak noiz eta non jardun zuen medikuntzan **itaundu** eta hala erantzun zion: "Alde batetik, Orion oporretan nengoela, aita kanpoan zegoenean bere bezeroak zaintzen nituen, eta Italian ere medikua izateko aukera izan nuen: 1918. urtean, gripe izurritearen garaian, Battistini landetxean nengoela, ez zegoen medikurik eta inguruko gaixo batzuk osatu behar izan nituen".

Gaur egun, Zarautzeko Sarobe kalea dago bere oroimenez.

Udako oporretan, Ignazio Tamuyo maisuarekin kantua ikasten zuen Donostian, eta Tamuyok berak medikuntzari utzi eta baritono izateko gomendioa egin zion.



TIFUS EXANTEMATIKOA

Tifus mota bat zen, eta, oso larria bazen ere, ez zen hain beldurgarria herritarrentzat eta bere lepotik barre egiten zuten "fiero tabardillo" deituta. Gaur egun, tifus exantematikoa deritzogu eta ezagutzen dugu bere birusa baita berau kutsatzeko bidea ere: *Rickettsia Proxovae* bakterioa eta **gorputz-zorria**. Izan ere, guda garaietan hedatzen da inoiz baino gehiago, gatazkek populazioen mugimendu handiak eragiten dituztelako. Horren ondorioz, errefuxiatuak garbitasunik eta higienarik gabeko baldintzetan bizitzera behartuta daude; eta orduan izaten da zorriak sortzeko egoerarik onena. Bere sintomak honako hauek dira: oso sukarr handia, eta sabeleko, sorbaldako eta buruko minak. Bestetik, gaixo guztien heren batean beste konplikazio larri batzuk agertzen dira biriketean, buruan eta giltzurrunetan.

Euskal Herrian, herrialde batzuetatik hedatutako lehenengo tifus epidemia XVIII. mendean izan zen Frantziako Errepublikaren aurkako gudaren ondorioz. 1794ko udazkenean hasi zen muga aldeetik eta poliki-poliki Nafarroako iparraldetik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik zabaldu zen. Bilboko biztanleek, adibidez, hamazazpigarren mendean bi epidemia jasan zituzten: 1669an eta 1693an, hurrenez hurren. Lehenengoan 500 lagun ospitaleratu behar izan zuten, eta horietatik 30 hil egin ziren; bigarrenean, ordea, 105 gaixo hil ziren Bilboko Ospitalean.

Bietan, infekzioaren arrazoia bera izan zen: Espainiako Erregearen gudetan parte-hartzearen ondorioz preso egondako gudariak. Beraiek Frantzia edo Holandako espetxeetan preso egon ostean Bilbotik igaroko ziren euren etxera itzultzeko, eta espetxeetan kutsatutako gaiotasuna besteengana zabalduko zuten.

XIX. mendean Independentzia guda eta **karlistaldiak** izan ziren eragilerik inportanteenak, baina orokorrean ez zen aparteko epidemiarik gertatu. Agian, bat aipatu nahi bada, Donostian izan zen 1813. urtekoa, konkistaren eta sutearen ondoriozkoa, beste guztien aldean gogorrena izan zena. Bilbon, oster, 1837. urtean, lehenengo guda karlista zelarik espetxeko preso karlista askoren artean epidemia zabaldu zen eta 37 preso gaixotu ziren. Gudari liberal batzuk ere kutsatu ziren, eta **izurritearekin** amaitzeko Bilboko mediku batek espetxea husteko gomendioa eman zien; horretarako, gauzatu gabe zeuden heriotza-zigorak ere aurreratu behar izan zituzten.

Lehen mundu gerra oso kaltegarria izan zen, batez ere ekialdeko Europan, Errusian eta Serbian, milaka lagun hil baitziren gaiotasunak jota. Gertatutako guztia aintzat hartuta, Espainiako guda zibilean beldur handia zegoen eta neurri gogorrak hartu zituzten bi bandoek halakorik berriro gerta ez zedin. Horiek horrela, Tifus kasu bakan batzuk baino

SANTA MONIKA KOMENTUA
Karlistentzat espetxea zen Bilboko Santa Monika komentuan, 1837an elgaizto gogorra sortu zen eta 37 preso gaixotu ziren.

ez ziren agertu, bai ordea, gerraostean, batez ere Bilbon. Bertan, 1945. urtean, 200 gaixo eta 17 hildako izan ziren; aipagarria ere bada 8.000 errefuxiatu manu militar agindupean eraman behar izan zituztela.

Guda garaietan hedatzen da inoiz baino gehiago, gatazkek populazioen mugimendu handiak eragiten dituztelako. Errefuxiatuak garbitasunik eta higienarik gabeko baldintzetan bizitzera behartuta daude; eta orduan izaten da zorriak sortzeko egoerarik onena.

Errezitaldi: *recital*.

Gailendu: *sobresalir, destacar*.
Gorputzeko zorri: *piojo de los vestidos*.

Goibel: *triste*.

Izurrite: *plaga, peste*.

Itaundu: *preguntar*.

Karlistaldi: *carlistada*.

Pasadizo: *acontecimiento, suceso, anécdota*.

Pubizorri: *ladilla*.

TXAGORRITXU OSPITALEKO IKASGELA

UMEAK ENTRETENITU ETA MOTIBATZEKO GILTZA



TXAGORRITXU OSPITALEAN, BESTE OSPITALE ASKOTAN BEZALA, TARTEKA HAURREK **EGONALDI**AK EGIN BEHAR IZATEN DITUZTE. EGONALDI HORIETAN UMEEK BERAIEI ESKOLA ZEREGINEKIN ERRITMOA GALDU GABE JARRAI DEZATEN ETA, ALDI BEREAN, OSPITALEKO EGONALDIAREN BAITAN EGUNEROKOA NORMALIZATZEKO ASMOZ, IKASGELA ZERBITZUA DUTE. IKASGELA HORREN ARDURADUNA GASTEIZKO ANA GARCIA DE MOTILOA IRAKASLEA DA.

Ikasgela ospitaleratuta dauden 3 eta 16 urte bitarteko umeei zuzenduta dago; astelehenetik ostiralera egoten da zabalik eskolako ordutegian, eta azken 18 urteotan Ana Garcia de Motilola irakaslea da berorren arduraduna.

Ikasgelaren arduradunak hiru ospitalizazio mota bereizten ditu: motzak, aste batera artekoak; ertainak, hilabetekoa; eta luzeak, hilabetetik gorakoak. Jakina, bakoitzak inplikazio eta koordinazio lan desberdina eskatzen du. Esate baterako, egonaldi luzeen kasuan Garcia de Motilola umeen eskolako tutoreekin etengabe koordinatu behar izaten da ikasgai eta eduki berak lantzeko zein azterketak egiteko. Dena den, onartu du azken urteotan ez dela halako egonaldi luzerik izan: “Tratamenduak eta joerak aldatu dira, eta gaur egun egonaldiak askoz motzagoak dira”.

Garcia de Motilok, lehenik eta behin, arlo emozionala lantzen duela jakinarazi du: “Txagorritxura datorren umea ez dago ondo, gaizki pasatzen dabil eta beldurra du. Horregatik, beldurrak **uxatzea**, entretenitzea eta motibatzea premiazkoa du. Horretan laguntzen diet. Behin hori bermatuta, ohiko ikasgaiekin jartzen gara”.

Esan bezala, Txagorritxuko ikasgelan eskolan ematen dituzten eduki eta ikasgai berberak lantzeko aukera dute; eta hezkuntzako zortzi konpetentziak ospitaleko testuingurutik lantzeko ere baliatzen dute. Esaterako, **ebakuntza gelaren** planoa aztertuko dute; grafiko bat egiten ikasteko egunero gorputzeko tenperatura neurtuko dute; asmatu beharreko ariketa aritmetikoa **sendagaiak** edo ospitaleko erremintak erabiliko dituzte... “Horrekin guztiarekin egiten duguna da ospitalean ber-

tan aurki ditzakegun elementuen bidez ikastea; eta, horrez gain, ospitea gurgana hurbiltzea”.


HIZKUNTZA ETA ADIN GUZTIETARAKO MATERIALA

Garcia de Motilok oso zaila deritza azken 18 urteotan Txagorritxuko ikasgelatik pasa den ume kopurua zenbaitzeari: “Ume batzuk ospitaleko gelatik bertatik konektatzen dira gure blogera eta handik egiten dute lan; beste batzuek, ordea, arratsalde bat bakarrik egiten dute hemen, ipuin edo bestelakoen bila datoz...”.

Munduko ia herrialde gehienetako jatorria duten umeak pasa dira dagoneko bertatik eta joera hori ez da txikitik; hortaz, erabilitako hizkuntzak ere anitzak dira. Horregatik, irakasleak garrantzia handia ematen dio hizkuntza askotako ipuin eta erremintak izateari. “Egoera berezi asko izan ohi ditut: go-goan daukat istripuan ama hil zitzaion ume frantses bat izan nuela hemen; eta bertan dauzkadan frantsesezko ipuin batzuei esker goiz osoa izan nuen neskatila entretenituta”.

ANA GARCIA DE MOTILOA

Gasteiztar hau Txagorritxu Ospitaleko irakaslea da orain dela 18 urte. Bertan egiten duen lan erraldoiaz gain, Hospitalandia bloga gidatu eta umeentzat hainbat ipuin idatzi eta argitaratu eman ditu.



“Ilustrazio atseginez jositako hainbat ipuin gauzatu ditu eta *Hospitalandia.blogspot.com* ere sortu eta elikatzen dihardu”.

MATERIAL PEDAGOGIKOAREN SORTZAILE SUTSUA

Garcia de Motiloak, ikasgela gidatu eta umeei irakasteaz gain, buru-belarri dihardu urteetan ospitalea, bertako tratamenduak eta umeak edo gizartea elkarri hurbildu nahian. Horretarako, ilustrazio atseginez jositako hainbat ipuin gauzatu ditu eta *Hospitalandia.blogspot.com* ere sortu eta elikatzen dihardu. Lan hori guztia bere kabuz eta bere aisialdi denboran egiten du, bere alaben laguntzarekin, helburu horiek **erdiesteko**.

Irakasle honek betidanik izan du idazteko zaletasun handia; eta gogoan du Txagorritxuko ikasgelan lanean hasi zenean idazteko premia handiagoa izan zuela. “Ederra da hemen lanean aritzea, baina gogorra ere bai. Sufrimendurekin bete-betea egiten duzu topo, umeena, gainera, eta horrek eragina du zuga”. Hain zuzen ere, umeren bat hil den bakoitzean Garcia de Motiloak ume horri lerro batzuk idatzi izan dizkio, eta gurasoek ere asko eskertzen dute hori. Horrez gain, umeek ospitaleetako tratamendu batzuei eta oro har ospitaleei dieten beldurra saihesten laguntzeko asmoz, ipuin batzuk idazten hasi zen, metaforaz jositako eta umorearen laguntzarekin, ‘Ospitalea eta hango langileak gu zaintzeko daudela’ ideia indartzeko.

Orain arte honako liburuak argitaratu ditu eta Interneten eskegita daude edozeinek erabiltzeko: ‘Rosalinda eta Domingo, xiringa eta xiringo’, minaren beldurra ekiditeko; ‘Kolorezko hiru makilatxo eta Paulo Depresore jauna’ beldurra uxatzeko; ‘Periko eta Calixta, tentsiometro artistak’, pentsamendu negatiboak lantzeko; ‘Otoskopia, Mikroskopia eta Teleskopia kankailua’, enpatia jorrazteko; eta ‘Arkadio doktorea, fonendo oso jakintsua’. Horrez gain, ‘Cinco loritos, Bost papagai’ Osaki-

detzak eta Hezkuntzak argitaratu zuten.

Horiei gehitu behar zaie lehen hezkuntzan lantzeko ‘Hospitalandia’ material pedagogikoa; loaren apenari buruzko ‘Samanta, manta arraina’; eta anai-arreba goiztiarrak izan dituzten umeei zuzendutako ‘Arturo, kanguru txikia’, besteak beste.

Ipuinen bilduma eta lan horiek hainbat hizkuntzatan eskuragarri daude: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Eta EAeko liburutegietan egoteaz gain, gero eta eskola gehiagotan erabiltzen dituzte ospitaleak hobeto ezagutzeko eta ikaskideren bat ospitaleratzten dutenean horretaz hitz egiteko. Are gehiago, HOPE Europako ospitaleetako irakasleen elkarrekin eskatuta, lanetako batzuk polonierara ere itzultzen hasiak dira.

HOSPITALANDIA BLOGA

Aipatutako lan horiek guztiak Garcia de Motiloak berak gidatzen duen Hospitalandia blogean digitalizatuta deskargatzeko moduan daude. Hala ere, blog honek alderdi gehiago ditu. Egilearen esanetan, ‘hitzak sendatu egiten du’ eta helburu horrekin sortu zuen bloga, umeek komunikatzeko erreminta bat izan dezaten. Bertan ospitalizatuta egon diren bitartean idatziak, grabazioak, marrazkiak edo nahi dutena sartzeko aukera dute, ikasgelatik bertatik, ospitaleko gelatik edo, behin alta hartu ostean, beraien etxe edo eskoletatik. Bada, diabetesa nola bizi izan duen kontatzen duenik, apendizitis aritzen dena, Garcia de Motiloak egiten duen ipuinak sortzerakoan parte hartu duenik, poesiak argitaratu dituztenak... Eta, gainera, umeak ospitalean daudenean ikaskideekin blogaren bitartez komunikatzen dira.

Egonaldi: *Estancia.*
Uxatu: *Ahuyentar, alejar.*
Ebakuntza gela: *Sala de operaciones.*

Sendagai: *Medicamento, medicina.*
Sutsu: *Apasionado, entusiasmado.*
Erdietsi: *Conseguir, alcanzar.*

LAZKAO OSASUN-ZENTROA

PEDIATRIA ZERBITZUA INDARTU DUTE AURTEN LAZKAOKO OSASUN-ZENTROAN

LAZKAOKO OSASUN-ZENTROAN LAZKAO, OLABERRIA ETA ATAUNGO BIZILAGUNAK ARTATZEN DITUZTE. HAMAR URTE BAINO GEHIAGO DIRA OSASUN-ZENTROA BERRITU ZUTELA; ORDURA ARTE, UDALETXEO ETXABEAN ESKAINTZEN ZUTEN ZERBITZUA, BAINA TOKI DESEGOKIA ZELA DIOTE. ERAIKIN BERRIAREKIN HAINBAT ZERBITZU ERE EGOKITU DUTE: PEDIATRIA ZERBITZUA INDARTU DUTE ETA ERREZETA ELEKTRONIKOAREKIN HASI DIRA LANEAN.

Lazkaoko Osasun-zentroa Goierri-Urola Garaiko ESIko Osasun-zentro txikiena da. Lazkaoko biztanleez gain, Ataun eta Olaberriako herritarrak ere artatzen dituzte. Olaberriko medikua eta erizaina dute, eta Ataunen San Martin eta San Gregorio zentroetan mediku eta erizain bana (Olaberriko 30 urte daramatzate erizain eta mediku lanetan Inmaculada Angiok eta Iñaki Andreuk). Lazkaon 5.300 biztanle dituzte, baina horiez gain, Ataun eta Olaberriako kontuan hartuta, 8.443 biztanle artatzen dituzte, tartean umeak. 8:00etatik 15:00etara lan egiten duten hiru mediku eta hiru erizain daude osasun-zentroan, eta horiez gain pediatria bat eta pediatriaren erizaina. Administrazioan hiru langile daude eta emagina astean hiru bider joaten da Lazkaora.

Osasun-zentroa larrialdi kasuetarako zabalik dago 15:00etatik 17:00etara.

PEDIATRIA ZERBITZUA INDARTZEAN

Lazkaoko Osasun-zentroan Pediatria Zerbitzua hobetzeko aldarri egin dute azkeneko urteetan. Pediatria Zerbitzua indartzeko astean ordu batzuetan mediku bat joaten da osasun-zentrora. "Itxaron zerrenda oso luzeak izaten



genituen lehen eta horregatik aldarrikatu izan dugu zerbitzua hobetzea. Pediatria Zerbitzuko berrikuntza aurten jarri digute", azaldu du Mari Jose Osese osasun-zentroko arduradunak.

Lazkaoko umeez gain, Ataun eta Olaberriako umeak ere Lazkaora joaten dira; 1.260 ume, hiru herriak kontuan hartuta. Pediatriako larrialdiak Beasainera bideratzen dituzte.

ERREZETA ELEKTRONIKOA

Lazkaon eta Olaberriko errejeta elektronikorekin hasi ziren lanean apirilaren amaieran. Farmazialariak, pazienteak eta gu ere oso pozik gaude, azaldu du Osese. Errezeta modu berriari onura besterik ez diote ikusten, eta orain arteko arazo handienak txartelarekin berarekin izan dituztela dio: "pazienteek txartelarekin joan behar dute farmaziara eta batzuek oraindik ez dute txartelik".

ESI guztietan bezala, Goierri-Urola Garaiko ESIan ere eskararen kudeaketan aldaketa batzuk

HIRU HERRI

Lazkaoko Osasun-zentroan Lazkaoko biztanleez gain, Ataun eta Olaberriako herritarrak artatzen dituzte.

egiten ari dira. Protokoloaren arabera, hainbat prozesu arin erizainak artatuko ditu aurrerantz. Osasun-zentroko sarreran egiten dute gestio hori: medikuarengana edo erizainarengana bideratzen dute pazienteak, eta administraziozko gestioa baldin bada euren egiten dute. "Esan behar da administrazio lana oso garrantzitsua dela", dio Osese.

Lazkaoko Osasun-zentroa txiki geratu dela dio Osese, eta handitzeko eskaera egin dute. Hala ere, egoera ekonomikoa kontuan hartuta aurrekonturik ez dagoela dio.

Aldarri egin: *reivindicar, reclamar.*

Artatu: *atender, asistir.*

Bideratu: *dirigir, guiar, encauzar, tramitar.*

Etxabe: *bajo, planta baja, bajera.*

ESI (Erakunde Sanitario Integratua): *OSI (Organización Sanitaria Integrada)*

Onura: *beneficio.*



GUARDIA

LANDUTAKO **ARMARRI** ETA
UPATEGI ARTEAN BARRENA



KONTRASTE GOGORREKO EREMUAN KOKATUTA, ARABAR ERRIOXAREN ERDIALDEAN DAGO GUARDIA. IPARRALDEAN KANTABRIAKO MENDILERROA ETA HEGOALDEAN EBRO IBAIA DITU MUGA EGITEN. XIII. MENDEAN ERAIKITAKO HARRESIA TENDE DAGO EGUN. HISTORIA ETA ALTXOR UGARI GORDETZEN DITU HIRIAK HARRESI HORREN BARRUAN; BESTEAK BESTE, ARDOA, GUARDIAREN ALTXOR NAGUSIA.

Nafarroako Antso Jakitunak **Hiribildu Forua** eman zion Guardiari 1.164. urtean. Modu horretan, Guardiako biztanleak gizon franko eta askeak egin zituen, merkatu askatasuna, zergen galera eta Jainkoen epaiketen ukatzea aitortuz. 1486an, Errege Katolikoen aginduetara Arabara gehitu zen Guardia.

Harresi sendo baten babesean dago Guardia. Independentzia Gerraren eta Gerra Karlisten ondorioz, baina, hainbat kalte izan zituen harresiak. Hiria bost ate ditu: Paganos, Mercadal, San Juan, Santa Engracia eta Carnicerias.

HISTORIA HARRIETAN

Hiria alderik alde zeharkatuz gero, historia harrietan idatzita daukan hiria dela konturatuko da bisitaria. Blaso eta landutako armarrak mantentzen dituzten jauregiak ikus daitezke. Nabarmenezkoa da, gainera, Erregeen Andre Maria elizaren atari polikromatua. 12 apostoluen irudiak daude atarian, eta baita Erregeen Andre Mariaren irudia ere **mainelean**. **Erretaula** nagusia (XVII. mendekoa) Juan de Bascardo artistarena da.

Hiriaren hegoaldean, San Juan elizatorlekua dago. Aiton-amonen ataria, hegoaldekoa, gotiko estilokoa da.

Hiriaren erdialdean arkupedun Plaza Nagusia dago. XIX. mendeko udalletxean, nabarmenezkoak dira Guardiaren armarrak eta karilloi-erlojua. 12:00etan, 14:00etan, 17:00etan eta 20:00etan irudi txiki batzuek kalejira doinuak dantzatzen dituzte. Gaitariaren plazan, Koko Rico artistaren Viajeros eskultura ikus daiteke.

Ardoaren garrantzia

Guardiako lurrazpia sei metrora zulatutako upategi edo **haitzuloz** beteta dago. Horrez gain, hiriaren kanpoaldean arkitekto ezagunek diseinatutako upategiak ikus daitezke. Upategi gehienek bisita gidatu zerbitzua eskaintzen dute. Ardoarekin lotura zuzena duen hiria da Guardia.

Armarrak: *Escudo.*

Erretaula: *Retablo.*

Hiribildu Forua: *Fuero de Villa.*

Mainel: *Parteluz.*

Urmael: *Laguna, estanque.*



ZELTIBERAR GARAIKO URMAELA

Erdi Aroko Guardia herria baino 80 metro gorago sortzen den iturburuko urak batzeko sortu zuten orain dela 2.100 urte La barbacana **urmaela**. Urmaelak itxura irregularra du; gehieneko neurriak 18x15 metrokoak dira, eta 0,85 eta 3,10 metro altuko hormak ditu. 218 metro koadroko azalera du guztira. Putzuaren bitartez 300.000 litro ur biltzen zituzten; ur horrekin, herritarren ur horniketa bermatzen zuten. Hainbat aurkikuntzaren arabera, erritoak egiteko lekua ere bazen urmaela: besteak beste, inguruan erromatar aldarea aurkitu dute. Uste dute zeltiberiarrek eraiki zutela urmaela K.a. III. eta II. mendeetan. 1998an, Iñaki Pereda Garciaren zuzendaritzapean egindako esku-hartze arkeologikoen agerian utzi zuten urmaelaren egitura. Burdin Aroko Europako urmael handiena da Guardiako. Gaur egun, Interpretazio Zentroaren bitartez uler daiteke egitura hidrauliko hark izan zuen garrantzia.

Euskaraz
bai sano!

Ongi etorri.
Laguntzea nahi?



**Ikur hau ikusten
duzunean egizu
euskaraz sano!**


Donde veas este símbolo podrás
ser atendido en euskera.



Osakidetza



euskaraz
bai sano!



Osatuberri

UDAKO POSTAL LEHIAKETA

Lehiaketan Osakidetza profesional guztiek parte hartu dezakete. Postala euskaraz idatzia izan beharko da eta mezua originala.

Postalak bidaltzeko epea: uztaila-abuztua-iraila.

Helbidea: Osatuberri aldizkaria. Araba 45.
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Postalik hoberenak argitara emango dira.

Bi sari banatuko dira:

1. saria: bidaietako liburuak, mapak eta aldizkariak.
2. saria: euskara arloan trebatzeko argitalpen sorta.

Irabazleak aukeratzekoan idatzitakoaren edertasuna, orijinaltasuna baloratuko dira, batik bat.

Anima zaitzte eta parte hartu!

Parte-hartzaile guztiok opari bat jasoko duzue.

